

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA PUBLIKO
ETA AUTOGOBERNU SAILA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO

Euskadiko Fundazioen
Babesletzan aurkeztutako
kontu-emateen azterketa eta
egiaztapena

2014ko ekitaldia

2016KO ABENDUA

Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio
Erregistroetako Zuzendaritza
Dirección de Relaciones con las Administraciones Locales y
Registros Administrativos



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	2
TXOSTEN HONEN XEDEA	2
TXOSTEN HONEN ANTOLAKETA	3
I. KAPITULUA: Espediente guztiak kuantifikatzea	4
II. KAPITULUA: Betebeharra noraino bete den eta agiriak zuzenak diren ebaluatzea.....	8
III. KAPITULUA: Agiriak noraino eguneratu diren ebaluatzea	11
IV. KAPITULUA: Beste betebeharrak batzuk noraino bete diren ebaluatzea.....	14
V. KAPITULUA: Ondareari eta jarduerari buruzko magnitude nagusiak aztertzea	21
VI. KAPITULUA: Kontuak aurkeztu dituzten fundazioetako gobernu-organoen datuak aztertzea, sexuaren arabera banatuta	40
ONDORIOAK	50
ERANSKINA.....	52



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

AURKEZPENA

Administrazio Publiko eta Justizia Sailaren (Gaur egun Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila) mendeko Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak (aurrerantzean Zuzendaritza), Fundazioen Babesletzari buruzko Erregelamendua (aurrerantzean Babesletzaren Erregelamendua) onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 7. eta 23. artikuluetan Fundazioen Babesletzari (aurrerantzean Babesletza) ezarritako eginkizunen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatutako fundazioek Babesletzaren aurrean beren kudeaketa justifikatzeko aurkeztu behar dituzten ekonomia- eta kontabilitate-agiriak aztertzeke eta egiaztatzeke lana egin du.

Aurkeztutako kontuak gordailutzea eta jendaurrean jartzea bidezkoa den baloratzeko (Babesletzaren Erregelamenduaren 23. artikulua), Fundazioen Babesletzak egiaztatzen du ea entregatutako agiriak elkarreei aplikatu beharreko araudian bildutako baldintzak betetzen dituzten¹.

Erakundeek aurkeztutako ekonomia-agiriak indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte, Babesletzak dagokion errekerimendua bidali du, elkarreek hilabeteko epearen barruan detektatutako akatsak konpon ditzaten, agiriak gordailutzeke eta jendaurrean jartzeke Fundazioen Erregistroa bidali aurretik. Epe hori igarotakoan azaldu den hori betetzen ez bada, eskaeran atzera egin dela ulertuko da. Hortaz, ebazpena emanen prozedura amaitutzat emango da, kontuak emateari buruzko espedientea artxibatuko da eta kontu horiek Erregistroan gordailutuko dira.

Aztertutako Fundazioen 2014ko ekitaldiko datuak interpretatzean, kontuan hartu behar da banku-fundazio berriak Euskal Autonomia Erkidegoko fundazio-sektorean integratu direla.

¹ Aplikatu behar den araudia:

- 2013ko martxoaren 26ko Ebazpenak, Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritzako Erakundearenak, irabazi-asmorik gabeko erakundeen eta irabazi-asmorik gabeko erakunde txiki eta ertainen kontabilitate-planak onartzen dituztenak.
- 1491/2011 Errege Dekretua, urriaren 24koa, irabazi asmorik gabeko entitateak Kontabilitate Plan Orokorrari egokitzeko arauak eta irabazi-asmorik gabeko entitateen jarduera-planaren eredia onartzen dituena.
- 12/1994 Legea, ekainaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzkoa (aurrerantzean, Fundazioen Legea).
- 100/2007 Dekretua, ekainaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren Erregelamendua onartzen duena.
- 50/2002 Legea, abenduaren 26koa, Fundazioena.



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

TXOSTEN HONEN XEDEA

Zuzendaritzaren iritziz txosten bat prestatu behar da berrikusitako erakunde guztietarako informazioa orokorrean emateko. Horrekin batera grafikoak aurkeztuko dira sektoreen arabera, erakundearen tamainaren arabera eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekiko loturaren arabera, lurraldeka. Txostenean, besteak beste, honako alderdi hauei buruzko datuak jasoko dira: zuzkidura, ondarea, diru-sarrerak eta gastuak, administrazio-gastuak, diru-laguntzak, langileria-gastuak eta abar.

Jarraian aurkeztuko den agiri honetan txosten orokor hori jasotzen da. Txosten horretan aurkeztu dira espediente guztiak berrikusitakoan lortutako emaitza nagusiak eta fundazioek emandako informazioaren azterketa eta egiaztapena.

Emaitza eta ondorio horietan kontuan hartzen dira hasieran entregatutako agiriak nahiz gerora, txostenaren datara arte, bidalitako errekerimendu bidez eskatuta ekarritakoak.

TXOSTEN HONEN ANTOLAKETA

- I. kapitulua: Berrikusitako espediente guztiak kuantifikatzea, bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztutako espedienteak, euskararen erabilera, lurralde historikoaren nahiz inskribatuta dauden Erregistroko atalaren arabera taldekatzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari lotutako fundazioak. Kontuak aurkeztu ez dituzten erakunde guztiak kuantifikatzea eta lurraldeka antolatzea
- II. kapitulua: Kontuak emateari buruzko espedienteetan agertu behar duten agiriak entregatzeko betebeharra noraino bete den ebaluatzea eta agiri horiek zuzentzea, epearen barruan edo atzeratuta aurkeztu diren egiaztatzea, eta egindako lanaren ondorioak.
- III. kapitulua: Aurkeztutako kontuak kontabilitate-araudi berriak sartutako aldaketen arabera noraino eguneratu diren ebaluatzea (aplikatu beharreko kontabilitate-plana)
- IV. kapitulua: Diru-sarrerak fundazioaren xedeak betetzeko erabiltzeari lotutako betebeharrak noraino bete diren ebaluatzea, kontuan hartuta administrazio-gastuen mugak eta kontuak kanpoko auditoretzaren mende jartzeko betebeharra.
- V. kapitulua: Erakundeen ondareari eta jarduerari buruzko magnitude nagusiak aztertzea
- VI. kapitulua: Kontuak aurkeztu dituzten fundazioetako gobernu-organoen datuak aztertzea, sexuaren arabera banatuta
- Ondorioak
- Proposamenak



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

I. KAPITULUA: ESPEDIENTE GUZTIAK KUANTIFIKATZEA

Txosten honen datan, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuta dauden erakundeak, guztira, 653 ziren (2013ko ekitaldiari buruzko txostenaren datan 636 fundazio). 2014ko ekitaldiko kontuak emateari dagokionez, Babesletzan kontuak aurkezteko betebeharra duten fundazioak 639 erakunde ziren (2013ko ekitaldian 624 erakunde), Lurralde Historikoaren arabera honela taldekatuta:

Lurralde Historikoa	Fundazioak 2014	%	Fundazioak 2013	%
Álava/Araba	97	15%	93	15%
Bizkaia	321	50%	317	51%
Gipuzkoa	221	35%	214	34%
Guztira	639	100%	624	100%

Kontuak ematera behartuta dauden fundazioak

Honako taula honetan agertzen dira 2014ko ekitaldian erakunde berrien ondorioz eta desegiteagatik/likidatzeagatik, bat egiteagatik edo beste erregistro batera lekualdatzeagatik erregistroan baja izan diren fundazioen ondorioz kontuak eman behar dituzten fundazioen zerrendan egondako mugimenduak:

Fundazioak 2013	624
Altak	17
Bajak	2
Fundazioak 2014	639

Babesletzaren Erregelamenduaren 23. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera, fundazioek Babesletzan agiri jakin batzuk aurkeztu beharko dituzte artikulua horretan eta irabazteko asmorik gabeko erakundeei aplikatu beharreko kontabilitate-araudian jasotako xedapenen eta irismenaren arabera, hori guztia, kontuak zein ekitaldiri buruzkoak diren eta ekitaldi horren itxieraren osteko lehenengo seihilekoaren barruan.

Txosten hau egin den datan, 366 fundaziok aurkeztu dituzte 2014ko ekitaldiari dagozkion kontuak. Ondorioz, Babesletzaren lana kontu horiek berrikusi eta aztertzea izan da, besterik ez. 2013ko ekitaldian, txostena egin zen datan, 325 fundaziok aurkeztu zituzten kontuak; hala ere, 2015ean eta 2016an, 2013ko ekitaldiari buruzko kontuak beste 39 fundaziok aurkeztu zituzten. Hortaz, txosten honen datan 2013ko ekitaldiari dagozkion kontuak 364 fundaziok aurkeztu dituzte.



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Jarraian zehaztuko dira 2014ko eta 2013ko ekitaldiei buruzko kontuak eman dituzten erakundeak, lurralde historikoaren arabera taldekatuta:

Lurralde Historikoa	Fundazioak 2014	%	Fundazioak 2013	%
Álava/Araba	41	11%	37	10%
Bizkaia	186	51%	188	52%
Gipuzkoa	139	38%	139	38%
Guztira	366	100%	364	100%

Kontuak aurkezten dituzten fundazioak

2014ko lehenengo sei hilekoan, administrazio-erregistroen ataria gaitu zen. Hala, fundazio eta onura publikoko elkarteek urteko kontuen aurkezpena elektronikoki tramitatu dezakete.

Jarraian, laburbilduta agertzen dira txosten honen datan kontu-ematea elektronikoki aurkeztu duten erakundeak:

Espediente telematikoen zk.	2013 ekitaldiko kontu-ematea	2014 ekitaldiko kontu-ematea	2015 ekitaldiko kontu-ematea
Sarrera 2014an	9	NA	NA
Sarrera 2015ean	5	47	NA
Sarrera 2016an	3	5	84
Bide elektrikoaren bidez aurkeztu diren kontuak	17	52	85
Guztira, aurkeztu diren kontuak	364	366	347
Telematikoki, %tan	%5	%14	%24

Telematikoki kontuak aurkeztu dituzten fundazioak

Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legeak Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan xedatuta dagoena garatzen du. Lege horren 5. artikulua euskal herritarrei aitortzen die Administrazioarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako edozein erakunde edo entitaterekin harremanak hitzez eta/edo idatziz euskaraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea.

Xede horrekin, gutxi gorabehera fundazioen % 30 Zuzendaritzarekin euskaraz jartzen dira harremanetan (idatziz edo telefono bidez), dela eurek kontratatutako langileen bitartez, dela eurek azpikontratutako langileen bitartez.



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Hala ere, fundazio gutxi aurkeztu dituzte kontuak ematearekin lotutako agiriak euskaraz, jarraian ikus daitekeenez:

Kontuen hizkuntza	Fundazioak 2014	%
Euskara	10	%3
Gaztelania	338	%92
Elebiduna	18	%5
Guztira	366	%100

Fundazioen kontuak, hizkuntzaren arabera

Horrenbestez, txosten honen datan 2014ko eta 2013ko ekitaldietako kontuak aurkeztu **ez** dituzten erakundeen banakapena honako hau da:

Lurralde Historikoa	Fundazioak 2014	%	Fundazioak 2013	%
Álava/Araba	56	21%	56	22%
Bizkaia	135	49%	129	50%
Gipuzkoa	82	30%	75	29%
Guztira	273	100%	260	100%

Kontuak aurkezten ez dituzten fundazioak

Beste alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 2.2 artikulua (*Antolaketa administratiboa eta izaera*) fundazioak sailkatzen ditu haietariko bakoitzari esleitzen zaion eginkizunaren arabera.

Gauzak horrela, Erregistroak jarraian azalduko diren atalak dauzka:

- Lehenengo atala: Irakaskuntza eta ikerketan aritzen diren fundazioak
- Bigarren atala: Ongintza-sorospeneko eta lan-arloko fundazioak
- Hirugarren atala: Kultura-, gazteria- eta kirol-fundazioak
- Laugarren atala: Gainontzekoak

Horrez gain, kasu batzuetan egokitzen jo da aipatu diren atal horiekin batera banku-fundazioak berezita aipatzea (laugarren atalaren barruan sartzen dira), adierazgarriak izateagatik.

Atal horietako bakoitzari atxikita dauden eta 2013ko eta 2014ko ekitaldiei buruzko kontuak emateko betebeharrak duten erakundeak, guztira, honako hauek dira:



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Sekzioa	Fundazioak 2014	%	Fundazioak 2013	%
Lehenengoa	247	%39	246	%39
Bigarrena	171	%27	165	%26
Hirugarrena	134	%21	129	%21
Laugarrena	87	%14	84	%13
Guztira	639	%100	624	%100

Kontuak ematera behartuta dauden fundazioak

Berrikusitako erakundeen xehetasuna, xedearen arabera sailkatuta, honako hau da:

Sekzioa	Fundazioak 2014	%	Fundazioak 2013	%
Lehenengoa	110	%30	112	%31
Bigarrena	113	%31	109	%30
Hirugarrena	92	%25	92	%25
Laugarrena	51	%14	51	%14
Guztira	366	%100	364	%100

Kontuak aurkezten dituzten fundazioak

Horrenbestez, txosten honen datan 2014ko eta 2013ko ekitaldietako kontuak aurkeztu **ez** dituzten erakundeen banakapena, atalen arabera, honako hau da:


Sekzioa	Fundazioak 2014	%	Fundazioak 2013	%
Lehenengoa	137	%50	134	%52
Bigarrena	58	%21	56	%22
Hirugarrena	42	%15	37	%14
Laugarrena	36	%13	33	%13
Guztira	273	%100	260	%100

Kontuak aurkezten ez dituzten fundazioak

Kontuak aurkeztu dituzten erakundeen eta hala egin ez duten erakundeen arteko proportzioaren aurkezpen grafikoa, lurralde historiko bakoitzean eta atal bakoitzean, honako hau da:



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia



EAEko Sektore Publikoa eta erakunde partaidetuak, 2014

www.euskadi.eus webgunean, Ogasun eta Finantza Sailari buruzko atarian, “Finantza-informazio publikoa” atalean eskuragarri dagoen informazioaren arabera, EAEko sektore publikoa osatzen duten fundazioak (EAEko sektore publikoko fundazioak) nahiz partaidetutako gainerako fundazioak jarraian agertzen dira laburbilduta:

EAEko Sektore Publikoa eta partaidetza duten entitateak 2014	Fundazioak 2014	Urteko kontuak aurkezten dituzten fundazioak, 2014
EAEko Sektore Publikoko Fundazioak	7	6
Partaidetza publiko gehiengodun duten eta ezein administratziotako sektore publikoan sartuta ez dauden erakundeak (EAEko administrazio orokorraren zuzeneko partaidetza dutenak)	15	13
Partaidetza publiko gehiengodun duten eta ezein administratziotako sektore publikoan sartuta ez dauden erakundeak (beste entitate batzuen partaidetza dutenak)	3	3
EAEko sektore publikoaren parte hartzea duten beste erakunde batzuk (EAEko administrazio orokorraren zuzeneko partaidetza dutenak)	12	12
EAEko sektore publikoaren parte hartzea duten beste erakunde batzuk (EAEko sektore publikoko beste entitate batzuen partaidetza dutenak)	4	4
EAEko sektore publikokoak ez diren arren, sektore horrekin kontabilitatesa kontsolidatzen duten entitateak	1	1
Guztira	42	39



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

II. KAPITULUA: BETEBEHARRA NORAINO BETE DEN ETA AGIRIAK ZUZENAK DIREN EBALUATZEA

Atal honetan, eta 2014ko ekitaldiko kontuak emateari buruz berrikusitako espediente bakoitzerako, agiriak entregatzeko betebeharra noraino bete den ebaluatuko dugu. Alde horretatik, lehenago aipatu den Babesletzaren Erregelamenduaren 23. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera, kontuak nahitaez aurkeztu behar zaizkio Babesletzari sei hilabeteko epean, ekitaldiaren bukaeratik zenbatzen hasita. Alde horretatik zera esan behar da: salbuespenak salbuespen, berrikusitako erakundeentzat 2015eko ekainaren 30a dela kontuak aurkezteko azken eguna (urte naturalarekin bat ez datorren ekitaldi ekonomikoa duten erakundeak bazter utzita; zehazki, aztertutako 366 fundazioetatik 10 soilik, hau da, aurkeztutako kontuen % 2,7).

Horrela, egiaztatu ahal izan dugu berrikusitako 366 fundazioetatik 105 fundaziok, hau da, berrikusitako % 28,7k (2013ko ekitaldian 128 fundaziok, hau da, berrikusitako % 35ek), mugaeguna baino geroago, hau da, berandu entregatu dituztela kontuak.

Alde horretatik, bada, Babesletzak berrikusi egin ditu jasotako kontu-emate guztiak, epe barruan nahiz kanpoan zeudela, helburu honekin: urteko kontu horiek gordailutzea eragozten duten akatsik ez dutela egiaztatu ondoren Erregistroan jendaurrean jarri ahal izatea, eta horrez gain, Babesletzak egiaztatu ahal izan zezan Erregistroan inskribatutako fundazioek kudeaketa egokia egiten dutela.

Beste alde batetik, jarraian zehazten da eskatutako agiri guztiak entregatu dituzten erakundeen kopuruaren kuantifikazioa, bai eta agiri guztiak ez entregatzeagatik zuzenketa-errekerimendua jaso dutenena, bai kopuru absolututan, bai kopuru erlatiboetan:


Obligazioaren betetzea	Fundazioak	%
Dokumentazio guztia aurkeztu dute lehenengo instantzian	181	%49
Lehenengo instantzian ez dituzte aurkeztu edo ez dituzte egoki aurkeztu eskatutako dokumentu guztiak	185	%51
Guztira	366	%100

Dokumentazioa egoki aurkeztu duten fundazioak eta hura zuzentzeko errekerituak izan direnak



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Berrikusitako 2014ko ekitaldiko kontu-emateetan 439 akats ikusi dira. Horiei guztiei zuzenketa-errekerimendua igorri zaie. Jarraian ahulgune horiek identifikatzen dira, tipologiaren arabera taldekatuta:



Ahulgune motak:

- ✓ *Kontuen auditoretza-txostena:* Kontuen auditoretza-txostena falta da.
- ✓ *Kontuak onartzeari buruzko ziurtagiria:* Ziurtagiria falta da. Ziurtagiri okerra
- ✓ *Balantzea eta emaitzen kontua:* Balantzea falta da. Emaizten kontua falta da. Biak falta dira.
- ✓ *Memoria:* Memoria falta da. Memorian eman behar den gutxieneko informazioa falta da.
- ✓ *Aurrekontuaren likidazioa:* Aurrekontuaren likidazioa falta da.
- ✓ *Inbentarioa:* Inbentarioa falta da
- ✓ *Diru-sarreen aplikazioa eta administrazio-gastuak:* Diru-sarreen ehuneko hirurogeita hamar gutxienez fundazioaren xedeak betetzeko erabiltzen dela egiaztatzeko informazioa falta da. Kalkulu okerra. Uneko ekitaldirako eta aurreko 3retarako azterketa falta da. Administrazio-gastuak diru-sarreen % 20 gehienez direla egiaztatzeko informazioa falta da. Kalkulu okerra.
- ✓ *Konparaziorako informazioa:* Konparaziorako informazioa falta da balantzean, emaitzen kontuan eta/edo memorian.
- ✓ *Deskoadratzeak:* Deskoadratutako finantza-egoerak: Aktiboa-Pasiboa / Balantzeko soberakina-Emaizten kontuko soberakina / Deskoadratutako ondare garbiaren aldakuntza (Balantzeko aldakuntza – Emaizten kontuko aldakuntza)



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

III. KAPITULUA: AGIRIAK NORAINO EGUNERATU DIREN EBALUATZEA

Fundazio baten urteko kontuak balantzean, emaitzen kontuan eta memorian daude jasota. Agiri horiek, Babesletzaren Erregelamenduaren 23. artikulua araberako, Babesletzari aurkeztu beharreko kontu-ematean agertu behar dute, batasun bat osatu behar dute, eta erakundearen ondarearen, finantza-egoeraren eta jardueren emaitzen irudi zehatza erakutsi behar dute.

Zorrotz hartuta, Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritzako Erakundearen 2013ko martxoaren 26ko Ebazpenetan, irabazi-asmorik gabeko erakundearen eta irabazi-asmorik gabeko erakunde txiki eta ertainen kontabilitate-planak onartzen dituztenetan, eta urriaren 24ko 1491/2011 Errege Dekretuan, irabazi-asmorik gabeko entitateak Kontabilitate Plan Orokorriari egokitzeko arauak eta irabazi-asmorik gabeko entitateen jardueraren planaren eredu onartzen dituztean ezarrita dagoenez, irabazi-asmorik gabeko erakundearen urteko kontuak ondarearen, finantza-egoeraren eta ekitaldian ondare garbian izandako aldakuntzen irudi zehatza erakutsi behar dute, bai eta egindako jardueraren eta bete beharrekoaren betetze-mailaren irudi zehatza eta eskudiru-fluxuen egoera-orrian aurkeztutako fluxuen benetakotasuna ere (azken horri buruzko informazioa eman behar duenean).

Hala, urteko kontuen memorian bete beharreko gutxienezko informazioan hainbat alderditako informazioa sartzen da, besteak beste honako hau: ondasunak, eskubideak, obligazioak eta erakundearen ondarea osatzen duten beste elementu batzuk (Inbentarioa), eskudiru-fluxuei buruzko informazioa, hori betetzera behartzen duten baldintzak betetzen direnean (eskudiru-fluxuen egoera-orria), bai eta erakundearen helburuak betetzeko aurreikusitako jarduerak zein neurritaraino egin diren azaltzen duen informazioa ere, Babesletzaren Erregelamenduak eskatutakoa, horietako bakoitzean lortutako eta aplikatutako baliabideen artean diferentziak ezarrita, eta onuradunen edo erabiltzaileen eta xede horiek lortzeko erabilitako giza baliabideen kopurua identifikatuta (Aurrekontuaren likidazioa, Diru-sarreraren xedea), eta fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunen eta eskubideen administrazioak zuzenean sorrarazitako gastuen xehetasuna nahiz jabeek ordainetan jaso behar dituzten gastuen xehetasuna (Administrazio-gastuak).

Gure iritziz bereziki garrantzitsua da fundazioak kontabilitate-araudi berrira zein neurritaraino egokitzen zaizkion aztertzea.

Aplikatu behar den kontabilitate-plana

Fundazioen Erregistroaren web plataforman –www.euskadi.net/registros – azaltzen denez, aukera dago kontabilitate plan diferentek aplikatzeko; horrekin batera, eredu diferentek doaz urteko kontuak osatzen dituzten agiriak aurkezteko, eta gainera, eragiketarako erregistratzeko irizpide diferentek aplikatu behar dira.



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Alde horretatik, irabazi-asmorik gabeko erakunde txiki eta ertainen kontabilitate-plana edo irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako kontabilitate-planaren eredu laburtua ausaz aplikatu ahalko dute fundazioek, baldin eta bi ekitalditan jarraian, ekitaldi bakoitzaren amaieran, gutxienez honako inguruabar hauetako bi badauzkate:

1. Aktiboaren partiden guztizko kopurua gehienez bi milioi zortziehun eta berrogeita hamar mila euro izatea.

2. Diru-sarreraren urteko bolumenaren zenbateko garbia gehienez bost milioi zazpiehun mila euro izatea. Xede horretarako, diru-sarreraren urteko bolumenaren zenbateko garbia 1. partiden –«Erakundeak bere jardueraren zioz lortutako sarrerak»– eta, bidezkoa izanez gero, merkataritza-jardueraren negozio-zifraren urteko zenbateko garbiaren arteko batura izango da.

3. Ekitaldian, batez beste, berrogeita hamar langile gehienez izatea.

Inguruabar horiek gaindituz gero, fundazioek irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako kontabilitate-planaren eredu normala aplikatuko dute.

Era berean, Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritzako Erakundearen 2013ko martxoaren 26ko Ebazpenean, irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako irabazi-asmorik gabeko erakunde txiki eta ertainen kontabilitate-planak onartzen dituenean azaldutako irizpideak, irabazi-asmorik gabeko mikroerakundeentzat, fundazio eta onura publikoko elkarteek aplikatu ahalko dituzte baldin eta irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako kontabilitate-plana aplikatzea hautatu badute eta ondoz ondoko bi ekitalditan, ekitaldi bakoitzaren amaieran, honako inguruabar hauetako bi betetzen badituzte:

1. Aktiboaren partiden guztizko kopurua gehienez 150.000 euro izatea.

2. Diru-sarreraren urteko bolumenaren zenbateko garbia gehienez 150.000 euro izatea. Xede horretarako, diru-sarreraren urteko bolumenaren zenbateko garbia 1. partiden –«Erakundeak bere jardueraren zioz lortutako sarrerak»– eta, bidezkoa izanez gero, merkataritza-jardueraren negozio-zifraren urteko zenbateko garbiaren arteko batura izango da.

3. Ekitaldi ekonomikoan, batez beste, bost langile gehienez izatea.

Fundazioek memorian identifikatu beharko dute aurkeztutako kontuetan aplikatutako plana.

Egindako lanaren ostean, honako emaitza orokor hauek lortzen ditugu:

**Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen
azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia**

Aplikatu beharreko Plana	Fundazioak	%
PGCESFL NORMALA	42	%11
PGCESFL LABURTUA/PYME	182	%50
PGCESFL SINPLIFIKATUA	133	%36
Zehaztugabea	9	%2
Guztira	366	%100

Aztertutako fundazioek aplikatu beharreko kontabilitate-plana



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

IV. KAPITULUA: BESTE BETEBEHAR BATZUK NORAINO BETE DIREN EBALUATZEA

Urteko kontuak indarrean dauden kontabilitate-irizpideetan oinarrituta formulatzeaz eta aurkezteaz gain, fundazioen araudiak berak hainbat betebehar ezartzen du. Betebehar horiek egiaztatu ahal dira, neurri handi batean, urteko kontu horietan eman beharreko gutxieneko informazioaren barnean doan azterketaren bidez, edo, betiere, kontuak emateari buruzko espedientearen zati gisa nahitaez aurkeztu beharreko gainerako agiriak aztertuz.

Jarraian betebehar horiek agertzen dira laburbilduta:

- ✓ Fundazioaren diru-sarreraren ehuneko hirurogeita hamar gutxienez –kontzeptu guztiengatik lortutako diru-sarrerak– fundazio bakoitzaren nahiaren arabera zehaztutako helburuak betetzea izango da (Fundazioen Legearen 30. artikulua eta Babesletzaren Erregelamenduaren 21. artikulua)
- ✓ Administrazio-gastuak gehienez ere fundazioak lortutako diru-sarreraren % 20 izango dira (Fundazioen Legearen 30. artikulua eta Babesletzaren Erregelamenduaren 22. artikulua)
- ✓ Garrantzi ekonomikoa duten fundazioek kanpoko kontu-auditoretza jasan beharko dute, kontu-auditoretza arautzen duen legean eta legea garatzen duten arauetan ezarritakoaren arabera. Bi urtetan, bata bestearen ondoan, ondoren adierazten diren ezaugarrietako bi gutxienez dauzkaten fundazioak izango dira garrantzi ekonomikoa dutenak:
 - a) Fundazioko ondarearen balioa 2.000.000,00 eurokoa edo hortik gorakoa izatea. Fundazioaren egoera-balantzean agertzen den aktiboaren diru-zenbateko osoa izango da ondarea, ekitaldia amaitzen den egunean betiere.
 - b) Fundazioak kudeatutako jardueren bolumena 3.000.000,00 eurokoa edo gehiagokoa izatea. Fundazioaren ohiko jarduerengatik emaitza-kontuko hartzekoan agertzen diren diru-sarreraren urteko kopuru garbia izan behar du kopuru horrek.
 - c) Fundazioak, bere kabuz, enpresa-jardueraren bat gauzatu izana edota bazkideen erantzukizuna mugaturik duen edozein sozietatetan % 5 baino gehiagoko partaidetza edukitzea.
 - d) Pertsona onuradunek ordaindutako zerbitzuen kopurua edo bolumena fundazioak egindakoak baino askoz handiagoak izatea.
 - e) Ekonomia-ekitaldian zehar enplegatutako langileen batez besteko kopurua 50etik gorakoa izatea.



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Nolanahi ere, Fundazioen Legearen 28. artikuluan eta Babesletzaren Erregelamenduaren 26. artikuluan ezartzen denaren arabera, halakotzat joko dira sozietate anonimoak kontuen auditoretzaren mendean jartzera behartzen dituzten inguruabarrak betetzen dituzten fundazioak. Alde horretatik, urriaren 31ko 1517/2011 Errege Dekretuak, Kontu Auditoretzaren Legearen testu bategina garatzeko Erregelamendua onartzen duenak, bere xedapen gehigarrietan zera azaltzen du:

- a) Erakundeek, beren izaera juridikoa edozein dela ere, baldin eta urteko kontuak egin behar badituzte aplikatu behar zaien finantza-informazioko arau-esparruaren arabera, auditoretzarako aurkeztu beharko dituzte sozietate-ekitaldiko urteko kontuak, Kontu Auditoretzaren Legearen testu bateginaren 1.2 artikuluan ezarrita dagoenaren arabera, baldin eta ekitaldi horretan, uztailearen 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bateginaren 257. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera, balantze laburtua egiteko aurreikusitako inguruabarrak ez badira gertatzen eta eredu normalaren arabera egin behar bada.
- b) Erakundeek, beren izaera juridikoa edozein dela ere, baldin eta urteko kontuak egin behar badituzte aplikatu behar zaien finantza-informazioko arau-esparruaren arabera, sozietate-ekitaldi batean Administrazio Publikoen aurrekontuen kontura edo Europar Batasunaren funtsen kontura guztira 600.000 euroko zenbateko metatuta egiten duten diru-laguntzak edo laguntzak jaso badituzte, auditoretzarako aurkeztu beharko dituzte ekitaldi horretako urteko kontuak, bai eta eragiketa horiek egiten direneko edo diru-laguntza edo laguntza horiei dagozkien inbertsioak betearazten diren ekitaldietako kontuak, Kontu Auditoretzaren Legearen testu bateginaren 1.2 artikuluan ezarrita dagoenaren arabera.
- c) Erakundeek, beren izaera juridikoa edozein dela ere, baldin eta urteko kontuak egin behar badituzte aplikatu behar zaien finantza-informazioko arau-esparruaren arabera, ekitaldi ekonomiko batean sektore publikoarekin Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 2. artikuluan aurreikusitako kontratuak egin badituzte guztira 600.000 euroko zenbateko metatuan, eta zenbateko hori beren urteko negozio-kopuruaren zenbateko garbiaren % 50 baino gehiago bada, auditoretzarako aurkeztu beharko dituzte sozietate-ekitaldi horretako urteko kontuak eta hurrengo ekitaldikoak, Kontu Auditoretzaren Legearen testu bateginaren 1. artikuluko 2. zenbakian ezarrita dagoenaren arabera.



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Egindako lanaren ostean, honako emaitza orokor hauek lortzen ditugu:

Diru-sarreraren aplikazioa

Diru-sarreraren aplikazioari buruzko alderdiak konpontzeko errekerimendua jaso dute 117 erakundek, hau da, errekerimendua jaso duten fundazioen % 63k eta aztertutako fundazioen % 32k.

Egindako azterketatik ondorioztatuenez, fundazioek diru-sarrera ia-ia guztiak beren Estatutuek ezarritako xedeekin lotutako gastu eta inbertsioetarako erabiltzen dituzte.

Honako laburpen-taula honetan kuantifikatzen dira Estatutuek ezarritako xedeak betetzeko erabilitako gastu eta inbertsioak. Era berean, gastu eta inbertsio horiek diru-sarreraren kopuru osoan duten garrantzia kalkulatu da:

Lurralde Historikoa	Diru-sarrerak	%	Xedera aplikatutako gastu eta inbertsioak	Diru-sarrerekiko pisua (%tan)
Alava/Araba	68.060.133	%8	62.727.650	%92,2
Bizkaia	487.173.010	%56	486.605.088	%99,9
Gipuzkoa	313.671.196	%36	317.124.285	%101,1
Guztira	868.904.339	%100	866.457.023	%99,7

Xedera bideratutako %, diru-sarrerekiko, eta Lurralde historikoa

Sekzioa	Diru-sarrerak	%	Xedera aplikatutako gastu eta inbertsioak	Diru-sarrerekiko pisua (%tan)
Irakaskuntza eta ikerketa	371.376.997	%43	388.192.857	%104,5
Ongintza-sorospen eta lan arloa	269.528.196	%31	245.717.298	%91,2
Kultura, gazteria eta kirola	146.570.990	%17	147.861.436	%100,9
Banku-fundazioak	46.289.000	%5	53.233.000	%115
Beste jarduera-eremu batzuk	35.139.156	%4	31.452.432	%89,5
Guztira	868.904.339	%100	866.457.023	%99,7

Xedera bideratutako %, diru-sarrerekiko, eta sekzioka (banku-fundazioak aparte)

Administrazio-gastuak

Diru-sarrerak fundazioaren xedeetarako erabiltzen direla egiaztatzeko egiten den modu berean, fundazioek 2014ko ekitaldiko urteko kontuen memorian (edo kontuak emateari



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

buruzko espedientea osatzen duen agiri batean) sartu behar dute administrazio-gastuak diru-sarreraren % 20 gehienez direla egiaztatzeko beharrezko informazioa.

Hala ere, lehenengoz, berrikusitako 58 kontu-emateetan (errekerimendua jaso duten kontuen % 37n eta aurkeztutako kontuen % 16n) hori ez da gertatu, edo behar ez den moduan egin da. Kasu horietan, Fundazioen Babesletzak hutsak zuzentzeko errekerimendua bidali du.

Era berean, aztertutako 366 erakundeetatik 113k (aztertutakoen % 30,9k) diote ez dutela izan administrazio-gasturik.

Lana amaitutakoan, honako taula honetan agertzen dira administrazio-gastuei buruzko ondorioz esanguratsuenak, erakunde-motaren arabera sailkatuta:

Sekzioa	Diru-sarrerak	%	Administrazio gastuak	Diru- sarrerekiko pisua (%tan)
Irakaskuntza eta ikerketa	371.376.997	%43	10.185.037	%2,7
Ongintza-sorospen eta lan arloa	269.528.196	%31	7.655.520	%2,8
Kultura, gazteria eta kirola	146.570.990	%17	6.647.221	%4,5
Banku-fundazioak	46.289.000	%5	2.431.403	%5,3
Beste jarduera-eremu batzuk	35.139.156	%4	709.858	%2,0
Guztira	868.904.339	%100	27.629.039	%3,2

Administrazio gastuetara bideratutako %a, diru-sarrerekiko, eta sekzioka (banku-fundazioak aparte)

Sekzioa	Batazbesteko admin. gastua	Admin. gastuak dituzten entitateak, guztira	%	Admin. gastuak ez dituzten entitateak, guztira	%	Errekerimenduari erantzuna ematen ez dioten entitateak/ Baieztapen soilak egiten duten entitateak	%
Irakaskuntza eta ikerketa	132.273	77	%70,0	30	%27,3	3	%2,7
Ongintza-sorospen eta lan arloa	98.148	78	%69,0	32	%28,3	3	%2,7
Kultura, gazteria eta kirola	112.665	59	%64,1	28	%30,4	5	%5,4
Banku-fundazioak	810.468	3	%100,0	0	%0,0	0	%0,0
Beste jarduera-eremu batzuk	32.266	22	%45,8	23	%47,9	3	%6,3
	115.603	239		113		14	

Batazbesteko administrazio gastuak (banku-fundazioak aparte)



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Garrantzi ekonomikoa

Babesletzaren Erregelamenduaren 26. artikulua ezartzen duenez, garrantzi ekonomikoko fundaziotzat jotzeko ezaugarriak dituen fundazioko gobernu-organoak Babesletzari jakinarazi beharko dio.

Kasu gehienetan, eta funtsean urteko kontuetan bilduta dagoen informazioaren bitartez, garrantzi ekonomikoa dutela uste dugun erakundeak identifikatu ahal izan ditugu, eta erakunde horiei errekerimendua bidali diegu kanpo-auditorearen txostena entregatzean huts egin badute.

Egitate horiek ezarrita, eta egindako lanaren ostean, atal honetan lortutako emaitza orokorrak honako hauek izan dira:

- ✓ Aurkeztutako espediente bakoitzerako egiaztatu da Babesletzaren Erregelamenduaren 26. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen diren. Hori egindakoa, zera ikusi da: guztira 136 erakundek dute garrantzi ekonomikoa, hau da, berrikusitako erakundeetatik % 37,2k (2013ko ekitaldian berrikusitakoen % 34k), eta horrenbestez, 2014ko ekitaldiko urteko kontuak kanpo-auditoretzarako aurkeztu behar dituzte, honako xehetasun honetan laburtuta agertzen denez:

Garrantzi ekonomikoa	Fundazioak 2014	%
Garrantzi ekonomikoarekin	136	%37,2
Garrantzi ekonomikorik gabe	227	%62,0
Zehaztugabea	3	%0,8
Aztertutakoak, guztira	366	%100

Ikuskatzera behartuta dauden (ez dauden) fundazioak

Aztertutako erakundeak lurralde historikoaren eta atalaren arabera taldekatuz, honako taula hauek ateratzen dira:



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Lurralde Historikoa	Garrantzi ekonomikoarekin	%	Garrantzi ekonomikorik gabe	%	Zehaztugabea	%
Álava/Araba	12	%9	28	%12	1	%33
Bizkaia	71	%52	113	%50	2	%67
Gipuzkoa	53	%39	86	%38	0	%0
Guztira	136	%100	227	%100	3	%100

Garrantzi ekonomikoa, lurralde historikoka. 2014

Sekzioa	Garrantzi ekonomikoarekin	%	Garrantzi ekonomikorik gabe	%	Zehaztugabea	%
Irakaskuntza eta ikerketa	49	%36	60	%27	0	%0
Ongintza-sorospen eta lan arloa	46	%34	67	%30	0	%0
Kultura, gazteria eta kirola	30	%22	61	%27	1	%33
Beste jarduera-eremu batzuk	11	%8	38	%17	2	%67
Guztira	136	%100	226	%100	3	%100

Garrantzi ekonomikoa, sekzioka

- ✓ Azkenik, 3 erakunderen kasuan, hau da, berrikusitakoen % 0,8aren kasuan (2013ko ekitaldian, berrikusitakoen % 2), gure lana egitean informazio-falta detektatu izanaren ondorioz, ezin izan dugu zehaztu "garrantzi ekonomikoa" zeukaten ala ez.
- ✓ Era berean, egiaztatu dugunez, "garrantzi ekonomikorik ez" zuten 227 fundazioetatik 35ek –hau da, garrantzi ekonomikorik ez duten erakunde guztien % 15,4k– 2014ko ekitaldiko urteko kontuen auditoretza-txostenak aurkeztu zituzten, beren borondatez (2013ko ekitaldiaren amaieran garrantzi ekonomikorik ez zutenen % 22 izan ziren).
- ✓ Laburbilduta, 2014ko ekitaldiko urteko kontuen auditoretza-txostena aurkeztu duten erakundeak guztira 167 izan dira, hau da, berrikusitako fundazioen % 45,6 (2013ko ekitaldian, aurkeztutako kontuen % 45,8 ikuskatu ziren).

Jarraian zehaztuko dira jasotako auditoretza-txostenak, horien artean garrantzi ekonomikoa dutenak eta garrantzi ekonomikorik ez dutenak bereizita:



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Garrantzi ekonomikoa	Fundazioak 2014	Ikuskaritza txostena aurkeztuta
Garrantzi ekonomikoarekin	136	132
Garrantzi ekonomikrik gabe	227	35
Zehaztugabea	3	0
Aztertutakoak, guztira	366	167

Ikuskaritza-txostena aurkezten duten fundazioak

- ✓ Egia da auditoretza-txostena berrikusitako erakundeen % 45,6k aurkeztu dutela; hala ere, magnitude ekonomiko nagusien multzo bateratua aztertuta, zera ikusten da: ikuskatu egin dira kontuak aurkeztu dituzten fundazio guztien aktiboen % 97, ondare garbien % 98, pasiboen % 94 eta gastu eta diru-sarreraren kopuruen % 95.



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

V. KAPITULUA: ONDAREARI ETA JARDUERARI BURUZKO MAGNITUDE NAGUSIAK AZTERTZEA

Kapitulu honetan aztertuko ditugu fundazioek kontu-emateen xede diren urteko kontuetako agirietan erakutsi dituzten epigrafe, saldo eta zenbateko batzuk. Aztertutako fundazioen finantza- eta ondare-azterketa egiteko oinarri gisa erabili ditugun agiriak, oinarrian, honako hauek izan dira: balantzea, emaitzen kontua eta, neurri txikiagoan, memoria.

Kasu batzuetan, kontabilitate arloko legeriak eskatzen duen gutxieneko informazioa osatzeko, argibide batzuk eskatu behar izan zaizkie (errekerimendua eginez) berrikusitako erakundeetako batzuei.

Alde horretatik, aztertzeko hautatutako magnitudeak dira 2014ko ekitaldiko ondare- eta finantza-egoera eta ekitaldi horretan nahiz ekitaldia amaitzean egindako jarduera-bolumena modurik eraginkorrean adierazten dituztenak. Zehazki, kalkulu orokorra egin da magnitude hauei buruz:

- Aktiboa
- Pasiboa
- Ondare garbia
- Diru-sarrerak
- Gastuak

Irizpide horiek oinarri hartuta, eta azterketa-lana egin ostean, kapitulu honetan lortutako emaitza orokorrak honako hauek dira:

- ✓ 2014ko ekitaldian, txosten honen datan kontuak eman dituzten 366 fundazio aztertu dira guztira. Fundazio horiek ekitaldian kudeatu dituzten gastuen zenbatekoa 868.904.339 euro izan da, eta fundazio horien batez besteko antzintasuna 26,82 urtekoa² izan da, xehetasun honen arabera:

² Barnean dira 50 urtetik gorako antzintasuna duten 34 fundazio. Datu hori zuzenduta, aztertutako erakundeen batez besteko antzintasuna 14,2 urtekoa izango litzateke.



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia


Sekzioa	Entitateak guztira	Batezbesteko antzintasuna (urtetan)
Irakaskuntza eta ikerketa	110	21,62
Ongintza-sorospen eta lan arloa	113	50,12
Kultura, gazteria eta kirola	92	14,32
Beste jarduera-eremu batzuk	51	8,94
Guztira	366	26,82

Batezbesteko antzintasuna, sekzioka

Laguntza- eta ongintza-erakundeen eta lan arloko erakundeen atalean 1940 baino lehen eratutako 22 erakunde (ia-ia mota horretakoen % 20) biltzen dira, eta horregatik batez besteko antzintasuna batezbestekoa baino nabarmen handiagoa da, zehazki, 50 urte, funtzionamenduan batez beste eman dituzten 26 urteen aldean.

Erakundeen kopururik handiena (% 60) 90eko hamarkadan eta XXI. mendeko lehenengo hamarkadan sortu zen. Zehazki, aztertutako 366 erakundeen artean guztira 89 eratu ziren 90eko hamarkadan, beste 68 erakunde 2000. eta 2005. urteen artean, eta guztira 62 erakunde 2006-2010 epealdian.



Urteak funtzionamenduan, sekzioka






Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

- ✓ Aztertutako 366 erakundeetatik, % 49 mikroerakundeak dira (ekitaldian gastua, guztira, 300.000 eurotik beherakoa izan zen), % 17 tamaina txikiko erakundeak dira (ekitaldian gastuaren zenbatekoa 300.000 eta milioi bat euro bitartekoa izan zen), % 23 ertainak (1 eta 5 milioi euro artean), % 9 handiak (5 eta 25 milioi euro artean) eta % 2 oso handiak (urteko gastuaren aurrekontua 25 milioi eurotik gorakoa da).



Jarduera-eremua tamainaren arabera (gastuak)





Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

MAGNITUDE EKONOMIKOAK

Berrikusitako fundazio guztien baterako balantzearen magnitude nagusiak honako balantze bateratu honetan aurkezten dira:

Aztertutako fundazioen balantze bateratua, 2014 eta 2013ko itxieran (eurotan)

Aktiboa	2014ko itxiera	2013ko itxiera	Ondare Garbia	2014ko itxiera	2013ko itxiera
	6.959.752.368	6.960.354.784		6.377.692.811	6.353.784.016
Pasiboa			Pasiboa	2014ko itxiera	2013ko itxiera
				582.059.557	606.570.767
Aktiboa, guztira	6.959.752.368	6.960.354.784	OG eta Pasiboa, guztira	6.959.752.368	6.960.354.784

Txosten honetako "Aurkezpena" atalean azaldu dugunez, 2014ko ekitaldian Fundazioen Erregistroan hiru banku-fundazio inskribatu ziren. Hala, Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioen sektorearen egoera nabarmen aldatu da. Horregatik, fundazio-sektorearen magnitude ekonomiko nagusiak kuantifikatzean egokitzat jo dugu hiru erakunde horien kopuruak bazter uztea.

Jarraian azalduko dira berrikusitako fundazio guztien balantze bateratuko magnitude nagusiak, hiru banku-fundazioak bazter utzita:



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Aztertutako fundazioen Balantze bateratua, 2014 eta 2013ko itxieran (eurotan)

Fundazio Bankarioak SALBU

Aktiboa	2014ko itxiera	2013ko itxiera	Ondare Garbia	2014ko itxiera	2013ko itxiera
	1.984.314.368	1.961.253.784		1.417.108.811	1.374.634.016
Pasiboa			Pasiboa	2014ko itxiera	2013ko itxiera
				567.205.557	586.619.767
Aktiboa, guztira	1.984.314.368	1.961.253.784	OG eta Pasiboa, guztira	1.984.314.368	1.961.253.784

Guztizko kopuru horren barruan sartzen diren erakundeen magnitude nagusiak lurralde historikoaren arabera taldekatuz (kopuru absolutu eta erlatiboetan), honako taula hau ateratzen da:

Lurralde Historikoa	Aktiboa	%	Ondare Garbia	%	Pasiboa	%
Alava/Araba	728.013.535	10%	692.699.686	11%	35.313.849	6%
Bizkaia	4.017.792.283	58%	3.671.649.007	58%	346.142.937	59%
Gipuzkoa	2.213.946.550	32%	2.013.344.119	32%	200.602.771	34%
Guztira	6.959.752.368	100%	6.377.692.811	100%	582.059.557	100%

Informazio hori bera Fundazioen Erregistroko atal bakoitzaren arabera taldekatuz gero, xehetasun hau ateratzen da, magnitudeak zehaztuta (aktiboa, ondare garbia eta pasiboa):

Sekzioa	Aktiboa	%	Ondare Garbia	%	Pasiboa	%
Irakaskuntza eta ikerketa	1.006.163.040	%14	584.845.290	%9	421.317.749	%72
Ongintza-sorospen eta lan arloa	572.657.903	%8	501.750.617	%8	70.907.287	%12
Kultura, gazteria eta kirola	301.109.975	%4	240.603.453	%4	60.506.524	%10
Banku-fundazioak	4.975.438.000	%71	4.960.584.000	%78	14.854.000	%3
Beste jarduera-eremu batzuk	104.383.449	%1	89.909.452	%1	14.473.997	%2
Guztira	6.959.752.368	%100	6.377.692.811	%100	582.059.557	%100



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Era berean, guztizko kopuru horren barruan sartzen diren erakundeen magnitude nagusiak likidatutako gastu-aurrekontuaren tamainaren arabera taldekatuz (kopuru absolutu eta erlatiboetan), honako taula hau ateratzen da:

Tamainua	Aktiboa	%	Ondare Garbia	%	Pasiboa	%
Mikro (<300.000€)	111.884.330	2%	103.379.913	2%	8.504.079	1%
Txikiak (300,000-1MM€)	202.734.916	3%	175.777.711	3%	26.957.206	5%
Ertainak (1-5MM€)	614.527.336	9%	490.909.736	8%	123.617.600	21%
Handiak (5-25MM€)	2.776.469.579	40%	2.539.231.445	40%	237.238.134	41%
Oso handiak (>25MM€)	3.254.136.206	47%	3.068.394.006	48%	185.742.538	32%
Guztira	6.959.752.368	100%	6.377.692.811	100%	582.059.557	100%

Berrikusitako fundazio guztien baterako emaitzen kontuko magnitude nagusiak emaitzen kontu bateratu honetan aurkezten direnak dira:

Aztertutako fundazioen Galdu-Irabazi Orri Bateratua. 2014 eta 2013ko itxieran (eurotan)

	2014ko itxiera	2013ko itxiera
Jarduera-gastuak	857.599.852	857.922.801
Jarduera diru-sarrerak	799.560.759	774.465.670
Jardueraren soberakin negatiboa	-58.039.093	-83.457.131
Finantza soberakin positiboa	41.005.267	25.052.394
Ekitaldiko soberakin negatiboa	-17.033.826	-58.404.737
Ondare garbira zuzenean aplikatutako diru-sarrera eta gastuak	25.839.710	41.582.566
Xede fundazionala, aldaketa	15.084.613	17.080.707
Beste aldaketa batzuk	18.299	-4.353.478
ONDARE GARBIA, ALDAKETA GUZTIRA	23.908.795	-4.094.941



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Jarraian, balantzearen kasuko irizpide berari jarraikiz, berrikusitako fundazio guztien emaitzen kontu bateratuko magnitude nagusiak azalduko dira, hiru banku-fundazioak bazter utzita:

Aztertutako fundazioen Galdu-Irabazi Orri Bateratua, 2014 eta 2013ko itxieran (eurotan) Fundazio Bankarioak SALBU

	Cierre 2014	Cierre 2013
Jarduera-gastuak	796.669.852	780.288.801
Jarduera diru-sarrerak	793.110.759	767.137.664
Jardueraren soberakin negatiboa	-3.559.093	-13.151.137
Finantza soberakin positiboa (negatiboa)	4.685.267	-3.222.600
Ekitaldiko soberakin positiboa (negatiboa)	1.126.174	-16.373.737
Ondare garbira zuzenean aplikatutako diru-sarrera eta gastuak	25.839.392	41.696.360
Xede fundazionala, aldaketa	15.084.613	17.080.707
Beste aldaketa batzuk	424.616	-4.352.919
ONDARE GARBIA, ALDAKETA GUZTIRA	42.474.795	38.050.412

Horrez gain, eranskinean sartzen dira berrikusitako fundazio guztien Balantzea eta Emaitzen Kontu Bateratua.

Gastuak eta diru-sarrerak arestian aipatu den emaitzen kontu bateratuaren barruko erakundeen lurralde historikoaren arabera taldekatuz gero, honako taula hau ateratzen da:

Lurralde Historikoa	Diru-sarrerak	%	Gastuak	%
Alava/Araba	68.060.133	8%	71.042.643	8%
Bizkaia	487.173.010	56%	492.833.990	56%
Gipuzkoa	313.671.196	36%	322.049.532	36%
Total	868.904.339	100%	885.926.165	100%



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Informazio hori bera Fundazioen Erregistroko atal bakoitzaren arabera taldekatuz gero, xehetasun hau ateratzen da, magnitudeak zehaztuta (diru-sarrerak eta gastuak):

Sekzioa	Diru-sarrerak	%	Gastuak	%
Irakaskuntza eta ikerketa	371.376.997	%43	373.469.544	%42
Ongintza-sorospen eta lan arloa	269.528.196	%31	262.401.041	%30
Kultura, gazteria eta kirola	146.570.990	%17	150.089.278	%17
Banku-fundazioak	46.289.000	%5	64.437.000	%7
Beste jarduera-eremu batzuk	35.139.156	%4	35.529.301	%4
Guztira	868.904.339	%100	885.926.165	%100

Azkenik, aztertutako erakundeen magnitude nagusiak likidatutako gastu-aurrekontuaren tamainaren arabera taldekatuz gero (kopuru absolutu eta erlatiboetan), honako taula hau ateratzen da:

Tamaina	Diru-sarrerak	%	Gastuak	%
Mikro (<300.000€)	15.812.068	%2	14.191.586	%2
Txikiak (300,000-1MM€)	36.599.380	%4	36.727.329	%4
Ertainak (1-5MM€)	207.316.273	%24	197.822.875	%22
Handiak (5-25MM€)	325.830.184	%37	341.429.987	%39
Oso handiak (>25MM€)	283.346.433	%33	295.754.388	%33
Guztira	868.904.339	%100	885.926.165	%100

Jarraian erakusten da aztertutako fundazio guztien diru-sarrerak izan duten bilakaera, kontuan hartuta atalen eta likidatutako gastu-aurrekontuaren tamainaren araberako sailkapena (banku-fundazioak aparte):

Sekzioa	Diru-sarrerak 2014	Diru-sarrerak 2013	% Aldak.
Irakaskuntza eta ikerketa	371.376.997	377.995.294	-%2
Ongintza-sorospen eta lan arloa	269.528.196	257.037.810	%5
Kultura, gazteria eta kirola	146.570.990	128.752.496	%14
Banku-fundazioak	46.289.000	35.605.000	%30
Beste jarduera-eremu batzuk	35.139.156	33.389.084	%5
Guztira	868.904.339	832.779.684	%4



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Tamaina	Diru- sarrerak 2014	Diru- sarrerak 2013	% Aldak.
Mikro (<300.000€)	15.812.068	16.357.055	-%3
Txikiak (300,000-1MM€)	36.599.380	38.635.418	-%5
Ertainak (1-5MM€)	207.316.273	197.384.374	%5
Handiak (5-25MM€)	325.830.184	306.226.914	%6
Oso handiak (>25MM€)	283.346.433	274.175.923	%3
Guztira	868.904.339	832.779.684	%4

- ✓ Ikusten denez, fundazioetan krisiak eragindako diru-sarreraren murrizketa ez zen agertu 2014ko ekitaldian. 2014ko ekitaldian, **batez besteko diru-sarrek** (banku-fundazioak kontuan hartu gabe) hobera egin zuten % 3, 2013ko ekitaldikoekin alderatuta; zehazki, 2014ko ekitaldian batez besteko diru-sarreraren zenbatekoa 2.266.158 euro izan zen; aldiz, 2013ko ekitaldian 2.196.073 izan zen. Oraindik urrun daude 2012ko kopuruak; urte hartan, batez besteko diru-sarreraren zenbatekoa 2.600.487 euro izan zen (2013eko ekitaldian diru-sarrek behera egin zuten % 15, 2012koekin alderatuta).
- ✓ Banku-fundazioak Fundazioen Erregistroan inskribatuta daudenetatik kontuak aurkeztu dituztenen ondare garbiaren % 79 dira (ia-ia 5 milioi euro, 6,4 milioitatik. Hala ere, 2014ko ekitaldiaren amaieran, pasiboen % 72 irakaskuntzan eta ikerketan aritzen diren fundazioetan biltzen dira.
- ✓ Gastu guztien artean langileria-gastuak nabarmentzen ditugu, beren garrantziagatik; izan ere, gastu guztien % 46 dira eta aplikatu behar den kontabilitate-plana zehaztean eragina daukate, edo areago, "garrantzi ekonomikoa"ren ezaugarria kontuan hartzean ere bai.

Gastua	%
Gastuak, laguntzetan	13%
Hornidurak	10%
Pertsonal gastuak	46%
Kanpo zerbitzuak	21%
Ibilgetuaren amortizazioa	7%
Finantza gastuak	3%
Guztira	100%

Gastu aurrekontuaren epigrafe bakoitzeko gastuak



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Kontuak aurkeztu dituzten berrikusitako erakunde guztietako (366 erakunde) langileria-gastuak taldekatuz, honako taula hauek lortzen dira lurralde historikoaren eta atalaren arabera:

Lurralde Historikoa	Pertsonal gastua	%
Alava/Araba	33.575.475	8%
Bizkaia	232.848.196	57%
Gipuzkoa	140.061.834	34%
Guztira	406.485.505	100%

Sekzioa	Pertsonal gastua	%
Irakaskuntza eta ikerketa	208.406.377	51%
Ongintza-sorospen eta lan arloa	135.016.584	33%
Kultura, gazteria eta kirola	38.063.116	9%
Fundazio bankarioak	10.204.000	3%
Beste jarduera-eremu batzuk	14.795.428	4%
Guztira	406.485.505	100%

- ✓ 2014ko ekitaldian, erakunde horietan 11.686 pertsona zeuden enplegatuta (2013ko ekitaldian 11.570 pertsona). 2012ko ekitaldian, ordaindutako enplegua, kopuru absolututan, 12.315 pertsona zirela kalkulatu da.

Tamaina	Langileak, guztira	Langileak batez beste, entitate bakoitzeko	Pertsonal gastua	Entitateak, guztira	Soldata kostua batez beste (Gizarte Segurantza barne)
Mikro (<300.000€)	156	1	3.808.251	180	24.382
Txikiak (300,000-1MM€)	462	8	16.187.250	61	35.071
Ertainak (1-5MM€)	2.491	29	86.503.602	86	34.726
Handiak (5-25MM€)	3.396	103	152.992.452	33	45.047
Oso handiak (>25MM€)	5.181	864	146.993.950	6	28.369
	11.686		406.485.505	366	24.637

Batez besteko plantillari dagokionez, diferentziarik handiena 25 milioi eurotik gorako aurrekontua duten erakundeetan dago. Multzo horretan 864 langiletik gorako batez besteko plantilla duten 6 erakunde (berrikusitakoen % 1,6) daude, eta horien artean 3 laguntza- eta ongintza-fundazioak eta lan arloko fundazioak dira, 1 ikerketan aritzen da, 1 kultur arlokoa da eta 1 banku-fundazioa da. 6 erakunde horietan 5.181 pertsona daude enplegatuta (guztien % 44).

2014ko abenduaren 31n, Eustatek emandako datuen arabera, EAEn 843.816 pertsona zeuden enplegatuta. Beraz, data hartan enplegua zuten pertsonen % 1,4 ari ziren lanean Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioen sektorean.



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Jarduera-adarraren arabera enplegaturiko pertsonen Eustaten zerrendaren (2015-1-1) arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioen sektorean enplegaturiko pertsona gehiago zeuden Ibilgailu motordunen fabrikazioan baino (9.473 pertsona), 11.474 pertsona enplegatuta zeuzkan finantza-zerbitzuen sektorean baino (aseguruak eta pentsio-funtsak bazter utzita), eta, adibidez, ur horniduraren eta saneamenduaren sektorean baino (6.243 pertsona). Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioen sektorearen pisua hurbil dago janarien, edarien eta tabakoaren industriaren sektoreen pisutik (12.600 pertsona enplegaturik), ibilgailuen salmenta eta konponketaren sektorearen pisutik (12.183 pertsona enplegaturik), IKTen pisutik (13.075 pertsona enplegaturik) eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren pisutik (13.414 pertsona enplegaturik).

- ✓ Diru-sarrera guztien artean Administrazio Publikoen ustiapenerako emandako diru-laguntzak nabarmentzen ditugu, beren garrantziagatik; izan ere, gastu guztien % 35 dira eta aplikatu behar den kontabilitate-plana zehaztean eragina daukate, edo areago, “garrantzi ekonomikoa”ren ezaugarria kontuan hartzean ere bai.

Diru-sarrera	%
Kuotak, dohantzak, aportazioak eta promozioak	%32
Ustiapeneko diru-laguntza publikoak	%35
Merkataritza-salmentak, zerbitzu-emateak eta beste diru-sarrera batzuk	%21
Finantza diru-sarrerak	%8
Beste batzuk	%5
Guztira	%100

Diru-sarrera aurrekontuaren epigrafe bakoitzeko sarrerak

Esan behar da “Kuotak, dohaintzak, aportazioak eta promozioak” eta “Merkataritza-salmentak, zerbitzu-emateak eta beste diru-sarrera batzuk” epigrafeetan, halaber, zati batean, Administrazio Publikoek emandako diru-sarrerak sartzen direla, kasu honetan faktura, hitzarmen, kontratu eta zerbitzugintzarako itun gisa.

- ✓ Erakundearen tamainaren arabera, diru-laguntza publikoekiko mendekotasuna aldatzen da. Jarraian erakusten diren tauletan ikusten denez, “mikroerakundeak” dira administrazio publikoen mendean gutxien dauden erakundeak (euren diru-sarreraren % 20 soilik dator ustiapenerako diru-laguntza publikoetatik). Hala ere, “handiak” deitzen diren erakundeak (urteko gastuak 5 eta 25 milioi euro bitartekoak)



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

administrazio publikoen mendean daude neurri handian, beren diru-sarreraren % 41 administrazio horietatik datorrelako.

Era berean, diru-sarreraren guztizko kopurutik, Administrazio Publikoen ustiapenerako emandako diru-laguntzak nabarmentzen ditugu, beren garrantziagatik; izan ere, diru-sarrera guztien % 35 dira.



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztatpena. 2014ko ekitaldia

Sekzioa	Kuotak, dohaintzak, aportazioak eta promozioak	%	Ustiapeneko diru-laguntza publikoak	%	Merkataritza-salmentak, zerbitzu-emateak eta beste sarrera batzuk	%	Finantza diru-sarrerak	%	Beste batzuk	%
Irakaskuntza eta ikerketa	109.377.956,93	%29	178.305.533,66	%48	51.456.561,15	%14	10.378.505,69	%3	21.858.440,04	%6
Ongintza-sorospen eta lan arloa	95.101.196,42	%35	50.514.966,22	%19	100.471.514,15	%37	17.982.062,19	%7	5.458.456,57	%2
Kultura, gazteria eta kirola	62.020.239,74	%42	52.127.406,80	%36	20.963.866,25	%14	653.652,10	0%	10.805.825,48	%7
Banku-fundazioak	3.682.000,00	%8	0,00	0%	1.120.000,00	%2	39.827.000,00	%86	1.660.000,00	%4
Beste jarduera-eremu batzuk	6.347.417,31	%18	21.310.420,48	%61	6.107.130,62	%17	490.359,63	%1	883.827,56	%3
Guztira	276.528.810,40	%32	302.258.327,16	%35	180.119.072,18	%21	69.331.579,61	%8	40.666.549,65	%5
Biderkatzailea	0,9		1		0,6		0,2		0,1	

8

Tamaina	Kuotak, dohaintzak, aportazioak eta promozioak	%	Ustiapeneko diru-laguntza publikoak	%	Merkataritza-salmentak, zerbitzu-emateak eta beste sarrera batzuk	%	Finantza diru-sarrerak	%	Beste batzuk	%
Mikro (<300.000€)	6.467.936,88	%41	2.989.389,25	%19	2.143.776,67	%14	3.476.006,12	%22	734.959,45	%5
Txikiak (300.000-1MM€)	12.742.036,56	%35	14.592.281,52	%40	4.225.995,62	%12	2.810.510,63	%8	2.228.556,02	%6
Ertainak (1-5MM€)	68.286.772,48	%33	79.589.812,41	%38	29.480.087,03	%14	20.776.562,98	%10	9.183.037,84	%4
Handiak (5-25MM€)	103.932.680,54	%32	134.548.807,98	%41	46.916.627,69	%14	19.145.168,08	%6	21.286.900,01	%7
Oso handiak (>25MM€)	85.099.383,94	%30	70.538.036,00	%25	97.352.585,17	%34	23.123.331,80	%8	7.233.096,33	%3
Guztira	276.528.810,40	%32	302.258.327,16	%35	180.119.072,18	%21	69.331.579,61	%8	40.666.549,65	%5
Biderkatzailea	0,9		1		0,6		0,2		0,1	



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Sekzioa	Gastuak, laguntzetan	%	Pertsonal gastuak	%	Kanpo zerbitzuak	%	Finantza gastuak	%	Hornidurak	%	Ibilgetuaren amortizazioa	%	Beste batzuk	%
Irakaskuntza eta ikerketa	13.852.177	%4	208.406.377	%56	70.321.697	%19	21.132.585	%6	28.052.309	%8	31.686.457	%8	17.943	%0,0
Ongintza-sorospen eta lan arloa	20.867.543	%8	135.016.584	%51	39.235.674	%15	2.107.758	%1	48.713.817	%19	15.110.709	%6	1.348.956	%0,5
Kultura, gazteria eta kirola	39.858.807	%27	38.063.116	%25	51.575.901	%34	1.511.998	%1	7.627.789	%5	10.106.309	%7	1.345.359	%0,9
Banku-fundazioak	32.440.000	%50	10.204.000	%16	11.437.000	%18	3.507.000	%5	0,00	%0	6.849.000	%11	0,00	%0,0
Beste jarduera-eremu batzuk	5.919.320	%17	14.795.428	%42	11.390.931	%32	66.973	%0	2.253.221	%6	1.098.455	%3	4.973	%0,01
Guztira	112.937.847	%13	406.485.505	%46	183.961.203	%2	28.326.313	%3	86.647.136	%10	64.850.931	%7	2.717.231	%0,3

Tamaina	Gastuak, laguntzetan	%	Pertsonal gastuak	%	Kanpo zerbitzuak	%	Finantza gastuak	%	Hornidurak	%	Ibilgetuaren amortizazioa	%	Beste batzuk	%
Mikro (<300.000€)	3.255.850,82	%23	3.808.251,04	%27	4.767.187,47	%34	330.755,69	%2	1.156.439,14	%8	846.373,04	%6	26.728,34	%0,2
Txikiak (300.000-1MM€)	5.224.114,23	%14	16.187.250,13	%44	10.196.331,55	%28	598.078,87	%2	1.276.849,01	%3	3.126.774,74	%9	117.930,38	%0,3
Ertainak (1-5MM€)	29.189.985,75	%15	86.503.601,51	%44	47.958.353,40	%24	2.777.145,60	%1	15.287.513,59	%8	15.760.459,20	%8	345.815,66	%0,2
Handiak (5-25MM€)	65.586.896,21	%19	152.992.452,01	%45	58.639.674,92	%17	20.728.478,61	%6	15.086.583,51	%4	26.227.027,98	%8	2.168.874,13	%0,6
Oso handiak (>25MM€)	9.681.000,00	%3	146.993.949,82	%50	62.399.655,56	%21	3.891.854,24	%1	53.839.751,00	%18	18.890.295,63	%6	57.882,19	%0,02
Guztira	112.937.847,01	%13	406.485.504,51	%46	183.961.202,90	%21	28.326.313,01	%3	86.647.136,25	%10	64.850.930,59	%7	2.717.230,70	%0,3




Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Lehenago ikusi dugunez, Administrazio Publikoek emandako ustiapenerako diru-laguntzak 2014ko ekitaldiko diru-sarrera guztien %35 dira, aztertutako fundazio guztietarako. Era berean, fundazioak gai dira iturri diferente ugaritatik datozen diru-sarrerak sortzeko, adibidez ondaretik datozen diru-sarrerak (finantza-sarrerak), kuota, dohaintza, elkarlan eta antzekoengatiko diru-sarrerak, zerbitzugintza eta salmentengatiko diru-sarrerak eta merkataritzako beste diru-sarrera batzuk eta abar.

Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioen sektorea gai da diru-laguntza publikoen euro bakoitzeko ia-ia beste bi euro jarduerarako mobilizatzen, eta jarduerarako diru-laguntza publikoen bolumena ia-ia hirukoizten du.

Sektore fundazionalaren diru-sarreren biderkatzailea. 2014







Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioen diru-sarreraren egituraren ezaugarria dibertsifikazio-maila handia da: alde batetik, iturri pribatuak eta publikoak konbinatzen dira, eta bestetik, beste sailkapen bat egin ahalko genuke barnean sortutako diru-sarrerak (salmentak, zerbitzugintzak eta ondarearen etekinak) eta kanpoan sortutakoak (dohaintzak eta diru-laguntzak) bereizita.

Fundazioen sektorearen funtsezko ezaugarria da bere finantzaketa-iturri nagusia dohaintza eta legatu pribatuak direla; hori egia da, baina egindako azterketatik ondorioztatzen da Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioen sektorea hainbat urtean elkartegintzarena izan den ezaugarritik gero eta hurbilago dagoela, hau da diru-sarrera publikoen mendean dagoela neurri handi batean.

Alde horretatik, Babesletzaren aurrean kontuak eman dituzten erakundeek jasotako diru-sarrerak aztertuz ikusten da Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioen finantzaketa ustiapenerako diru-laguntza publikoek garrantzi handia dutela fundazioen diru-sarreraren aurrekontuan. Era berean, erakunde publikoei ematen zaizkien zerbitzuek ere garrantzi handia dute, batik bat hitzarmen, kontratu eta antzekoen forman.

2014ko ekitaldian, aztertutako fundazioei Administrazio Publikoek emandako diru-sarrerak (diru-laguntzak, hitzarmenak, kontratuak eta antzekoak) honela banatu ziren:




*Onura publikoko elkarteen
Diru-sarrera publikoen
jatorria*



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia


Fundazioen diru-sarrera publikoen jatorria, mota bakoitzeko

■ Udalak eta beste entitate lokal batzuk ■ Aldundiak ■ EAEko Sektore Publikoa ■ Estatuta ■ Europa ■ Beste Administrazio batzuk



Fundazioen diru-sarrera publikoen jatorria, tamainaren arabera (gastuak)

■ Udalak eta beste entitate lokal batzuk ■ Aldundiak ■ EAEko Sektore Publikoa ■ Estatuta ■ Europa ■ Beste Administrazio batzuk



Aurreko bi grafikoetan ikusten denez, Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioen artean nagusi dira "EAEko Sektore Publikoa" deritzon horretatik datozen diru-sarrera publikoak. Sektore horren barruan daude EAEko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza), bere erakunde autonomoak, Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoak (Osakidetza, EEE, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, eta abar) eta sozietate publikoak (EEE Taldea, SPRI Taldea, eta abar).




Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia


Administrazio Publikoetatik datozen diru-sarrerak batik bat I+G+b arloarekin lotutako helburuetarako erabili dira, alde batetik, eta irakaskuntza eta prestakuntzarekin lotutako helburuetarako, bestetik, honako grafiko honetan agertzen denez:

Diru-sarrera publikoen aplikazioa

- Irakaskuntza eta ikerketa
- Ongintza-sorospen eta lan arloa
- Kultura, gazteria eta kirola
- Beste jarduera-eremu batzuk



- Mikro-entitateak
- Txikiak
- Ertainak
- Handiak
- Oso handiak





Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

EAEko Sektore Publikoa eta erakunde partaidetuak, 2014

Honako taula hauetan ikusten denez, Euskal Sektore Publikoa osatzen duten 39 fundazioek, metatuta, 277 milioi euroko gastu-aurrekontua daukate (aztertutako 365 fundazioen % 31), eta 2014ko ekitaldiaren amaieran, beren aktiboen zenbatekoa 595 milioi euro zen (aztertutakoen % 9).

EAEko Administrazio Orokorrak partaidetzen dituen 12 fundazioak, gehiengo partaidetzarik izan gabe ere, "EAEko Sektore Publikoa eta erakunde partaidetuak" izeneko osatzen duten erakundeen gastuen aurrekontuaren % 65 eta aktiboen % 76 dira; EAEko Sektore Publikoko 6 Fundazioak, aldiz, gastuen aurrekontuaren % 15 eta aktiboen % 6 dira, hurrenez hurren.

EAEko Sektore Publikoa eta partaidetza duten entitateak 2014	Diru-sarrerak	%	Gastuak	%	Aktiboa	%	Ondare Garbia	%	Pasiboa	%
EAEko Sektore Publikoko Fundazioak	41.968.748	15%	42.491.045	15%	35.853.104	6%	18.449.241	5%	17.403.863	7%
publikoan sartuta ez dauden erakundeak (EAEko administrazio orokorraren zuzeneko partaidetza dutenak)	33.416.930	12%	32.878.271	12%	62.849.529	11%	40.432.281	12%	22.417.250	9%
Partaidetza publiko gehiengodun duten eta ezein administrazioetako sektore publikoan sartuta ez dauden erakundeak (beste entitate batzuen partaidetza dutenak)	2.582.240	1%	2.572.080	1%	11.415.318	2%	8.922.099	3%	2.493.219	1%
EAEko sektore publikoaren parte hartzea duten beste erakunde batzuk (EAEko administrazio orokorraren zuzeneko partaidetza dutenak)	177.851.967	65%	180.754.200	65%	450.793.218	76%	252.383.367	74%	198.409.851	78%
EAEko sektore publikoaren parte hartzea duten beste erakunde batzuk (EAEko sektore publikoko beste entitate batzuen partaidetza dutenak)	16.213.607	6%	16.092.285	6%	33.678.911	6%	21.115.789	6%	12.563.122	5%
EAEko sektore publikokoak ez diren arren, sektore horrekin kontabilitatesa kontsolidatzen duten entitateak	1.701.898	1%	1.688.065	1%	254.496	0%	60.435	0%	194.061	0%
Guztira	273.735.390		276.475.946		594.844.577		341.363.212		253.481.366	
%	32%		31%		9%		5%		44%	
Fundazioak, Guztira.2014	868.904.339		885.926.165		6.959.752.368		6.377.692.811		582.059.219	



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

VI. KAPITULUA: KONTUAK AURKEZTU DITUZTEN FUNDAZIOETAKO GOBERNU-ORGANOEN DATUAK AZTERTZEA, SEXUAREN ARABERA BANATUTA

Memoria honetan lehenengo aldiz aztertu dira fundazioek sexuaren arabera bereizita emandako datuak; beren erabaki-organoei sexuaren arabera duten osakerari buruzko datuak, hain zuzen ere.

Kapitulu honen helburu nagusia da fundazioek berdintasun arloko aginduak noraino betetzen dituzten aztertzea, bereziki ekainaren 2ko 9/2016 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzkoan bilduta daudenei dagokienez.

Horri esker konparazioa egin ahalko dugu 2014ko ekitalditik aurrera, duela gutxi 2016ko ekainaren 13an Fundazioen Lege berria argitaratu zela kontuan hartuta.

Fundazioen azterketa honen testuingurua ezartze aldera, erreferentzia gisa hartuko dugu emakumeek enpresetan erabakiak hartzeko esparruetan duten presentzia, baita finantza-arloan eta sindikatuen arloan duten presentzia ere; hala, gizarte-bizitzan EAEko elkarteetan eta hirugarren sektorearen bitartez duten partaidetza aztertzen jarraituko dugu.

Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifren 2015eko txostenak³ dioenez, *“Euskadiko **sindikatu nagusietatik**, LABek soilik du emakume bat idazkari nagusi gisa. Gainontzeko sindikatuek gizon bat dute zuzendaritzan eta **batzorde exekutiboetan dauden emakume kopurua % 50aren azpitik dago**”.*

*Euskadin egoitza duten finantza-erakundeetako erabaki-esparruetan, pertsona gehienak gizonak dira. Euskadiko lau erakunde horietako presidentek gizonak dira, eta **haien erabaki-organo garrantzitsuetan, batez beste % 22,6 emakumeak dira**. Fiare da, bazkide kontseiluan, hau da, haren organo nagusian, emakume gehien dituena, ia % 31. Laboral Kutxako ordezkaritzan emakumeak % 11 besterik ez dira.*

IBEX 35en kotizatzen duten euskal enpresetako (BBVA, GAMESA eta IBERDROLA) erabaki-organoetan ere, egoera oso antzekoa da emakume kopuruari dagokionez. Hiru erakundeetan, presidentek gizonak dira eta administrazio-kontseiluan edo zuzendaritza nagusian, emakumeen portzentajea % 30aren azpitik dago.

EAEen emakumeek eta gizonen elkarteetan parte hartuz daukaten gizarte-bizitzari dagokionez⁴, *“EAEen 6 urte edo gehiago daukaten hamar pertsonetatik lau elkarte edo sozietateren bateko kidea da. Horietatik gehienak gizonak dira (% 53,4) eta % 46,6 emakumeak.*

- **Gizonak:** % 67,2 dira kirol erakundeetan eta % 58,7 erakunde politikoetan, sindikaletan eta lanbide-erakundeetan, hurrenez hurren.

³ http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/servicio_cifras/eu_emakunde/adjuntos/zifrak_2015.pdf

⁴ Zifrei buruzko 2015eko txostenaren arabera, EUSTATen eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Bizibaldintzen estatistikatik (2014), eta Denbora Aurrekontuen Inkestatik (2013) aurrera



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

- **Emakumeak**, aldiz, gehiago dira hezkuntza-elkarteetan (% 63,2), erlijio-elkarteetan (% 60,4), garapenerako lankidetzak-erakundeetan (% 58,8) eta gizarte-laguntzako erakundeetan (%56,9).
- **Generoen arteko oreka**: Generoen arteko nolabaiteko oreka dagoen elkarte eta erakundeak auzo-elkarteak, giza eskubideen elkarteak eta bestelako elkarteak dira.”

Bestalde, EAEko biztanleriaren % 16,2k borondatezko laguntza eskaintzen du elkarte eta erakundeetan, eta horietatik % 47 emakumeak dira, eta % 53 gizonak.

- **Borondatezko laguntza ematen duten emakumeek** elkarte erlijiosoetan (% 73,3), garapenerako lankidetzak-erakundeetan (% 68,0) eta gizarte-laguntzako erakundeetan (% 63,7) eskaintzen dute. Generoen aldea emakumezkoen rol tradizionalak baldintzatuta egon daiteke.
- **Borondatezko lanak egiten dituzten gizonak**, aldiz, prebalentzia handiagoa izaten jarraitzen dute kirol-elkarteetan (% 69,3), erakunde politikoetan, sindikaletan eta lanbide-erakundeetan (% 61,6). Gainera, kasu honetan borondatezko lanak egiten dituzten kopurua emakumeena baino askoz handiagoa da.

2015eko azaroko Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Liburu Zuriaren⁵ arabera, sektore honetako erakundeen gobernu-organoak osatzen dituzten pertsonen % 52,95 emakumeak dira. Dena dela, emakumeen erakunde espezifikoko azterketatik kanpo utziz gero –laginaren % 10,7 dira–, proportzioa % 47,95ra jaisten da. **Gobernu-organoetan, emakumeen ratioa nabarmen txikiagoa da fundazioetan (karguen % 33,46 dira) eta “fundazioa edo elkarte ez diren beste figura juridiko batzuk” dituzten erakundeetan (karguen % 40,95). Ildo beretik, emakumeek pisu txikiagoa dute aurrekontu-bolumen handiagoa duten erakundeen organoetan (karguen % 40,13 dira milioi eta erdi eurotik gorako erakundeetan).**

Emakumeek gizonak baino presentzia handiago dute eremu hauetako erakundeen gobernu-organoetan: **Sozial-Zeharkakoa (karguen % 58,35 betetzen dute), Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak (karguen % 57,73) eta Osasuna (karguen % 52,56).**

Halaber, erakundeen bolumen mardul batek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin zerikusia duten kudeaketa-ekimenak gauzatzen ditu (% 67,29).

% 21,82k berdintasun plana dute eta % 45,47k ez dute berez berdintasun planik, hau da, “Idatziz ez, baina berari lotutako ekintzak gauzatzen ditugu”.

Ikusi dugun bezala, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin zerikusia duten ekintzek garapen gradu nabaria dute sektorean. Dena dela, datu batzuek agerian uzten dute beharrezkoa dela bide horretan aurrera egiten jarraitzea. Erakunde hauek osatzen dituzten pertsonen kapituluak, islatuta geratu da emakumeak gehiago direla sektorean, figura

⁵ http://www.3bizkaia.org/Archivos/Documentos/Enlaces/1825_2_EuskadiHSSLiburuZuria2015.pdf



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

juridikoa, erakundearen bolumen ekonomikoa eta jarduera-eremua zeinahi direlarik ere. **Batez beste, emakumeak boluntarioen % 56,52 dira, eta kontratatutako pertsonen % 68,24.**

Hala eta guztiz ere, **emakumeek erakundeen gobernu-organoetan duten presentzia nabarmen txikiagoa da eta ez dator bat emakumeek boluntarioen eta soldatapeko pertsonen artean duten pisuarekin:** batez beste, emakumeak sektoreko gobernu-organoetan karguak dituzten pertsonen % 52,95 dira, eta erakundeen aurrekontua igotzen den neurrian asko jaisten da ehuneko hori.

Erakundeen % 11,37k gizon eta emakumeen proportzio berdina dute beren gobernu-organoetan. Erakundeen % 8,67k gizonez soilik osatutako gobernu-organoa dute, eta % 17,28k emakumez soilik osatutakoa. Dena dela, azken datu hori % 7,35era murrizten da emakumeen erakunde espezifikoak kontatzen ez badira.

Emakumeak gutxiengo dira erakundeen % 42,4tan, eta gehiengo patronatu-batzordeen edo zuzendaritza-batzordeen % 36,3tan (emakumeen erakunde espezifikoak kanpo utzita).

Azterketa gizarte-alderdian kokatu ondoren, lehenengo urratsa fundazioei berdintasunaren arloan eragiten dieten aginduak biltzea da, eta zehatzago, Fundazioen Lege berriak bere artikuluetan biltzen dituen horiek:

- **EAEko fundazio guztien jarduketarako eta funtzionamendurako printzipio gisa genero-berdintasuna** kontuan hartzea. (28. artikulua).
- *Fundazioen organoak eratzerakoan, kontuan hartu beharko dira, hala badagokio, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean dauden aurreikuspenak, **organo horietako ordezkariak orekatuak dagokionez.** (Laugarren xedapen gehigarria).*
- *Era berean, euskal botere publikoen jarduneko irizpide orokorra izango da behar diren neurriak hartzea **sexuaren aldagaia sar dadin** arau honek ematen dizkien eskumenak betetzeko **aurkezten den dokumentazioan.** (Laugarren xedapen gehigarria).*

Eta sektore publikoko fundazioetarako, zehazki betebeharrak jasotzen ditu 64. artikuluan:

2. Kontratazio publikoaren araudiaren ondorioetarako sektore publikoko erakundetzat jotzen diren fundazioek bermatu egin beharko dute egiten dituzten kontratazioak printzipio hauen arabera direla: lizitazioetan parte hartzeko askatasunaren printzipioa, prozeduren gardentasunaren eta publikotasunaren printzipioa eta lehiakideen arteko diskriminaziorik ezaren eta tratu-berdintasunaren printzipioa. Bermatu egin beharko dute, halaber, berdintasun-, merezimendu-, gaitasun- eta publikotasun-printzipioei jarraituko zaiela langileak aukeratzeko deialdietan. (Hori nahitaezkoa da enpresa guztientzat, 3/2007 Legearen arabera)

4. Sektore publikoko fundazioek berdintasun-planak egin beharko dituzte, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 40. artikuluan⁶ xedatutakoaren

⁶ **40.1 artikulua.**– Partaidetza nagusia kapital publikoarena duten enpresak beti, bai eta enplegatutako pertsona-kopuruaren edo beste irizpide batzuen arabera erregelamenduz zehaztuko diren enpresa pribatuek ere, hala



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

arabera eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoaren 49. artikuluan⁷ xedatutakoaren arabera. 64. artikulua.

Emakundek Fundazioei buruzko lege berriaren aurreproiektuari buruz egindako txostenaren arabera: *“Horri dagokionez, gogora ekarri nahiko genuke honako hau: 4/2005 Legearen 2.3 artikulua dioenaren arabera, lege horren 3., 16., 18.4 eta 23. artikulua aplikatu behar zaizkie botere publiko guztiei eta erakunde **privatuei, haiekin botere publikoek kontratuak edo hitzarmenak sinatu badituzte, edo horregatik emandako laguntza edo diru-laguntzen onuradunak badira; izan ere, horregatik datuak sexuaren arabera bereizita eduki behar dituzte, ezin dute hizkera sexistarik erabili, euren zuzendaritza-organoetan emakume eta gizonen arteko presentzia orekatua sustatu behar dute eta 4/2005 Legearen 3. artikulua emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan ezartzen dituen printzipio orokorrak bete behar dituzte. Xede horrekin, botere publikoekin kontratuak, hitzarmenak edo diru-laguntzak ezartzen dituzten fundazioek artikulua horiek bete beharko dituzte.***”

Azterketa hori esparru gisa hartuta, kontuan izan behar da agindu horiek Fundazioei buruzko Lege berria argitaratzen denetik aurrera, hau da, 2016ko ekainaren 14tik aurrera jarriko direla indarrean; beraz, fundazioek data horretatik aurrera 2016ko ekitaldiari buruz aurkeztzen dituzten kontuetan honako azterketa hau egin da Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak 2014ko ekitaldiari buruz dauzkan datuekin.

Lehenengoz, arreta jarriko dugu 2014ko ekitaldian laugarren xedapen gehigarria betetzean: *“Fundazioen organoak eratzekoan, kontuan hartu beharko dira, hala badagokio,*

enpresa barruan nola kanpoko jardunean, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko neurri zehatzak eta eraginkorrak biltzen dituzten planak edo programak egin behar dituzte.

⁷ Baliteke akatsa izatea, fundazioentzat garrantzirik handiena 46. artikuluko izango baita, eta ez 49. artikuluko. Jarraian transkribatzen dira:

49. artikulua. Berdintasun-planak borondatez ezartzeko laguntza.

Berdintasun-planak borondatez ezar daitezzen bultzatzeko, Gobernuak suspertze-neurriak ezarriko ditu, gehienbat, enpresa txiki eta ertainei begira; neurri horiek behar besteko laguntza teknikoa jasoko dute.

46. artikulua. Enpresetako berdintasun-planen kontzeptua eta edukia.

1. Enpresetako berdintasun-planak antolatutako neurri-multzoa dira; neurri horiek egoeraren diagnostiko bat egin ondoren hartuko dira, eta xede izango dute enpresan emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera-berdintasuna lortzea eta sexuan oinarritutako bereizkeria ezabatzea.

Berdintasun-planek ezarriko dituzte lortu beharreko berdintasun-helburu zehatzak, horretarako gauzatu beharreko estrategia eta eginerak, bai eta ezarritako helburuei jarraipena egiteko eta helburuok ebaluatzeko sistema eragingarriak ere.

2. Ezarritako helburuak lortzeko, berdintasun-planek jaso ahal izango dituzten gaien artean izango dira, besteak beste, enplegua lortzea; lanbide-sailkapena; aurrerakuntza eta prestakuntza; ordainsariak; landenboraren antolaketa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arabera laneko, norberaren eta familiako bizitza uztartu ahal izateko; eta sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren prebentzioa.

3. Berdintasun-planek osotasunean hartuko dute enpresa, kalterik egin gabe lantoki jakin batzuetan ekintza bereziak ezartzeari.



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean dauden aurreikuspenak, organo horietako ordezkariak orekatuak izan behar direla dagokionez.”

4/2005 Legearen 3. artikulua dioenez, pertsona anitzeko administrazio-organismoetan ordezkariak izan behar diren joko da, hain zuzen, sexu biek % 40ko ordezkariak izan behar diren bitartean, gutxienez.

Beraz, memoria honetan ordezkariak izan behar diren patronatuak aztertuko ditugu, hau da, emakumeen eta gizonen ordezkariak % 40 eta % 60 bitartean izan behar direnak. Patronatu maskulinizatuetan, hain zuzen, emakumeak % 40 baino gutxiago dira, eta feminizatuetan, aldiz, % 60 baino gehiago.

Azterketan hiru aldagai hauek hartuko dira kontuan: fundazioetako patronatuen banaketa sexuen arabera, xedearen arabera, garrantzi ekonomikoaren arabera eta, azkenik, ekitaldian jasandako gastuaren arabera.

Fundazioetako patronatuen sexuen araberako banaketa aztertu ahal izateko, fundazioen xedearen arabera, kontuan hartuko dira bai Banku-fundazioak (bereizita, adierazgarriak direlako, eta Erregistroan laugarren atalean sailkatuta), bai ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duenak 2.2 artikuluan dakarren xedearen araberako sailkapena⁸, “Antolaketa administratiboa eta izaera” izenburu duena; sailkapen horretan, fundazioak sailkatzen dira haietariko bakoitzari esleitzen zaion xedearen arabera.

Ezeren aurretik argitu behar dugu honako lagin hau aztertu dugula: 2014an kontuak aurkezteko betebeharra daukaten 639 fundazioetatik, zuzendaritza-batzordea sexuen arabera bereizita daukagu 362 fundaziotan, hau da, % 57n.

Ezeren aurretik, zera azaldu behar da: **2014ko ekitaldian kontuak aurkeztu zituzten fundazioen % 20ren gobernu-organismoetan ez dago emakumerik**, hau da, 362 fundaziotatik 73tan.

⁸ Erregistroak jarraian azalduko diren atalak dauzka:

- a) Lehenengo atala: Irakaskuntza eta ikerketan aritzen diren fundazioak
- b) Bigarren atala: Ongintza-sorospeneko eta lan-arloko fundazioak
- c) Hirugarren atala: Kultura-, gazteria- eta kirol-fundazioak
- d) Laugarren atala: Gainontzeak



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Fundazioaren xedearen arabera

Lehenengoz, patronatuak osatzen dituzten pertsonak aztertzen dira, sexuaren arabera eta erakundearen xedearen arabera banakatuta.

Aztertutako fundazioen gobernu-organoen banaketa, sexuen arabera, xedea kontuan hartuta. Absolutuak, %a eta generoen arteko aldea. 2014						
Sekzioa	Guztira	Gizonak		Emakumeak		Generoen arteko aldea ⁹
		(Abs.)	(%)	(Abs.)	(%)	
Irakaskuntza eta ikerketan aritzen diren fundazioak	997	742	% 74	255	% 26	- 48
Ongintza-sorospeneko eta lan-arloko fundazioak	858	558	% 65	300	% 35	- 30
Kultur, gazteria eta kirol arloko fundazioak	736	542	% 74	194	% 26	- 47
Banku-fundazioak	40	29	% 73	11	% 27	- 46
Gainontzekoak	369	269	% 73	100	% 27	- 46
GUZTIRA	3.000	2.140	% 71	860	% 29	- 42

Ondorio orokorrak hauek dira: aztertutako fundazioen gobernu-organotako kide diren 3.000 pertsonen artean, emakumeak % 29 dira. Generoen arteko aldea ehuneko 42 puntukoa da.

Fundazioaren xedearen arabera, gobernu-organotan emakumeen presentzia handiena da ongintza-sorospeneko eta lan-arloko fundazioetan (% 35).

Patronatuetan emakumeen kopururik txikiena irakaskuntza eta ikerketan aritzen diren fundazioetan eta kultura-, gazteria- eta kirol-fundazioetan dago, baina horietatik oso hurbil daude banku-fundazioak eta gainontzekoak.

Honako taula honetan ikus dezakegu fundazio horien artean zenbatek betetzen duten laugarren xedapen gehigarria, hau da, gobernu-organotan ordezkartza orekatua izatearen printzipioa:

⁹ GENEROEN ARTEKO ALDEA: Aldagai baten kategorian emakumezkoen eta gizonezkoen ehunekoaren edo tasaren artean dagoen aldea da. Aldagai batean emakumezkoen ehuneko edo tasa bati aldagai horretan bertan gizonezkoen ehuneko edo tasa kenduta kalkulatzen da. Emaizta hori ehuneko puntutan neurtzen da. Berdintasunetik hurbilago egongo gara generoen arteko aldea zerotik hurbilago dagoenean. (Egitura-funtsen eta kohesio-funtsaren bidez finantzaketa lagunduta duten eragiketen esparruan genero-arraialak aztertzekeo estatistika-iturrien eta adierazlearen gida. Emakumearen Erakundea)



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Aztertutako fundazioen patronatuak, sexuen ordezkartzaren arabera, xedea kontuan hartuta. Absolutuak eta %a. 2014.

Sekzioa	Patronatu maskulinizatuak	%	Ordezkaritza orekatua daukaten patronatuak	%	Patronatu feminizatuak	%
Irakaskuntza eta ikerketan aritzen diren fundazioak	78	% 72	19	% 17	12	% 11
Ongintza-sorospeneko eta lan-arloko fundazioak	63	% 57	31	% 28	17	% 15
Kultur, gazteria eta kirol arloko fundazioak	65	% 71	18	% 20	8	% 9
Banku-fundazioak	3	% 100	0	% 0	0	% 0
Gainontzekoak	34	% 71	11	% 23	3	% 6
GUZTIRA	243	% 67	79	% 22	40	% 11

Ondorio orokor hau ateratzen da: ikusten denez, patronatuetan emakumeak daukaten erakundeen artean % 22k soilik dute ordezkartza orekatua. Gainera, **fundazioen % 67k beren patronatuetan ez daukate emakumeen eta gizonen ordezkartza orekaturik**. Kasuen % 11n, emakumeen ordezkartza % 60tik gorakoa da, hau da, gobernu-organo feminizatuak dira.

Fundazioen xedeari dagokionez, aipatu diren lau moten arabera, eta banku-fundazioak kontuan hartuta, honako ondorio hauek aterako lirateke:

- Lehenengo atala: Irakaskuntza eta ikerketan aritzen diren fundazioak: **% 72k patronatuetan ez dauka** emakumeen eta gizonen **ordezkartza orekaturik**, hau da, patronatu maskulinizatuak dira.
- Bigarren atala: Ongintza-sorospeneko eta lan-arloko fundazioak: **% 57k patronatuetan ez dauka** emakumeen eta gizonen **ordezkartza orekaturik**, hau da, patronatu maskulinizatuak dira.
- Hirugarren atala: Kultura, gazteria eta kirol-fundazioak: **% 71k patronatuetan ez dauka emakumeen eta gizonen ordezkartza orekaturik**, hau da, patronatu maskulinizatuak dira.
- Laugarren atala: Gainontzekoak: **% 71k patronatuetan ez dauka** emakumeen eta gizonen **ordezkartza orekaturik**, hau da, patronatu maskulinizatuak dira.
- Banku-fundazioak: Erakunde horiek dute sexuen aldetik ordezkartzarik desorekatuena; **izan ere, % 100ek patronatuetan ez dauka emakumeen eta gizonen ordezkartza orekaturik**, hau da, patronatu maskulinizatuak dira.



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Fundazioaren garrantzi ekonomikoaren arabera

100/2007 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Patronatuari buruzkoak, 26. artikuluan ezarritako garrantzi ekonomikoaren arabera, fundazioetako patronatuen sexuen araberako banaketa aztertu dugu honako taula honetan:

Aztertutako fundazioetako patronatuek sexuaren arabera duten banaketa, garrantzi ekonomikoaren arabera. Absolutuak, %a eta generoen arteko aldea. 2014						
Garrantzia	Guztira	Gizonak		Emakumeak		Generoen arteko aldea
		(Abs.)	(%)	(Abs.)	(%)	
Ekonomia aldetik garrantzitsua	1.440	1.042	% 72	398	% 28	-44
Garrantzirik gabea	1.548	1.089	% 70	459	% 30	- 40
GUZTIRA	2.988	2.131	% 71	857	% 29	- 42

Ateratzen den lehenengo ondorioa da 2014ko ekitaldian aztertutako erakunde guztietatik 136 erakunde garrantzi ekonomikoa daukatela, hau da, berrikusitako erakundeen % 37,36k. 136 erakunde horien gobernu-organoak osatzen dituzten 1440 pertsonetatik, % 28 soilik dira emakumeak. Garrantzirik gabeko erakundeetan gobernu-organoak osatzen dituzten pertsonen % 30 emakumeak dira.

Fundazio guztietan generoen arteko aldea ehuneko 42 puntukoa da, kapitulu honetako lehenengo taulan ikusi dugunez, eta alde hori bi puntu handiagoa da garrantzi ekonomikoa duten fundazioetan.

Sexuen araberako ordezkariak betetzen duten ala ez, egiaztatzen denez, garrantzi ekonomikoa daukaten fundazioen % 69k ez dauka ordezkariak orekaturik beren gobernu-organoetan, eta horien atzetik oso hurbil doaz garrantzirik ez dutenak, jarraian ikusiko denez:



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Aztertutako fundazioen patronatuak, garrantzi ekonomikoaren eta sexuen ordezkartzaren arabera. Absolutuak eta %a. 2014							
Garrantzia	Patronatu maskulinizatuak	%	Ordezkaritza orekatua daukaten patronatuak	%	Patronatu feminizatuak	%	GUZTIRA
Ekonomia aldetik garrantzitsua	93	% 69	30	% 22	12	% 9	135
Garrantzirik gabea	148	% 66	49	% 22	27	% 12	224
GUZTIRA	241	% 67	79	% 22	39	% 11	359

Erakundearen tamainaren arabera, ekitaldian jasandako gastua kontuan hartuta

Ikusten denez, fundazioen tamaina aldagai esanguratsua da; izan ere, zenbat eta handiagoa enpresaren tamaina, hainbat eta emakume gutxiago fundazioaren erabaki-organoan, honako taula honetan ikusten denez:

Aztertutako fundazioetako patronatuen banaketa, erakundearen tamaina kontuan hartuta. Absolutuak, %a eta generoen arteko aldea. 2014						
Tamaina	Guztira	Gizonak		Emakumeak		Generoen arteko aldea
		(Abs.)	(%)	(Abs.)	(%)	
Mikro	1146	801	% 70	345	% 30	- 40
Txikiak	459	311	% 68	148	% 32	- 36
Ertainak	840	599	% 71	241	% 29	- 42
Handiak	426	325	% 76	101	% 24	- 52
Oso handiak	129	104	% 81	25	% 19	- 62
GUZTIRA	3.000	2.140	% 71	860	% 29	- 42

Patronatuetan emakumeen batez besteko presentzia (% 29) izatetik hurbilen dauden fundazioak mikro fundazioak eta fundazio txiki eta ertainak dira; horietan emakumeak % 30, % 32 eta % 29 da, hurrenez hurren.

Zenbat eta tamaina handiagoa, hainbat eta gehiago urruntzen dira batezbesteko horretatik; izan ere, erakunde handietan, emakumeek erabaki-organoetan daukaten presentzia % 24 soilik da, eta oso handietan % 19.



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

Ordezkaritza orekatua betetzen al duten; taula honetan ikusten denez, mikro erakundeak eta erakunde txikiak eta ertainak euren patronatuetan ordezkaritza orekaturik ez daukaten fundazioen % 67ko batezbestekora hurbiltzen dira. Handiak % 82ra heltzen dira, eta oso handien kasuan, 6 fundaziok, % 100k, patronatu maskulinizatuak daukate.

Aztertutako fundazioen patronatuak, jasandako gastuaren tamainaren ¹⁰ eta sexuen ordezkaritzaren arabera. Absolutuak eta %a. 2014						
Tamaina	Patronatu maskulinizatuak	%	Ordezkaritza orekatua daukaten patronatuak	%	Patronatu feminizatuak	%
Mikro	113	% 64	40	% 23	24	% 13
Txikiak	41	% 67	15	% 25	5	% 8
Ertainak	56	% 66	19	% 22	10	% 12
Handiak	27	% 82	5	% 15	1	% 3
Oso handiak	6	% 100	0	% 0	0	% 0
GUZTIRA	243	% 67	79	% 22	40	% 11

¹⁰ Mikroerakundeak: ekitaldian guztira 300.000 beherako gastua izan dutenak.
Txikiak: ekitaldian 300.000 euro eta milioi bat euro bitarteko gastua izan dutenak
Ertainak: 1 eta 5 milioi euro artean
Handiak: 5 eta 25 milioi euro artean
Oso handiak: urtean 25 milioitik gorako gastu-aurrekontua izan dutenak.



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

ONDORIOAK

2014ko ekitaldiko kontuak emateari buruzko espedientearen barruan ekarritako agiriak aztertu eta berrikusteko egin dugun lanean, nabarmentzekoak diren egoera batzuk aurkitu ditugu:

- 2014ko ekitaldian, betebeharra zeukaten 639 fundazioetatik 366k soilik aurkeztu zituzten kontuak, hau da, % 57,3k. 2013ari buruzko txostenaren datan, 325 fundaziok igorritako kontu-emateari buruzko agiriak jaso ziren, hau da, 2014an aurkeztutakoak baino ehuneko 5 puntu gutxiago. Horregatik goranzko joera ikusten da kontuak aurkezteari dagokionez, are gehiago Fundazioen Lege berria indarrean jarri dela kontuan hartuta.
- Txosten honen datan, kontuak aurkezten dituzten erakundeen % 25ek gutxi gorabehera bitarteko elektronikoak erabili zituzten.
- Fundazioen % 30ek euskara erabiltzen dute Zuzendaritzarekin harremanetan jartzeko. Hala ere, kontuak emateari buruzko agiriak euskaraz fundazioen % 8k soilik aurkezten dituzte.
- Berrikusitako fundazioen kontu-emateetan gehienetan errepikatu den ahulgunea da diru-sarreraren xedearen berri emateko betebeharra (% 70), fundazioaren xedeen berri ematekoa, eta administrazio-gastuen berri ematekoa. Zehazki, agiriak konpontzeko errekerimendua jaso zuten lehen 185 fundazioetatik 117k –% 63– oharra jaso zuten lehen instantzian, diru-sarrerak zegozkion xedeetarako erabiltzeari buruzko agiria falta zutela adieraziz. Era berean, igorritako 185 errekerimenduetatik 59tan (% 32) administrazio-gastuei buruzko informazio-eskaera jaso zen.
- EAEko sektore publikoan eta erakunde partaidetuetan 42 fundazio daude. 2014ko ekitaldian, erakunde horien ondare garbia 300 milioi eurotik gorakoa izan da, eta gastuen eta diru-sarreraren aurrekontua ia-ia 275 milioi eurokoa.
- 2014ko ekitaldian, kontuak aurkeztu dituzten fundazioen % 37,2k (136 fundazio) garrantzi ekonomikoa daukate, eta beraz, kanpo auditorearen txostena aurkeztu behar dute, Babesletzaren Erregelamenduan ezarrita dagoenez. Horrez gain, “garrantzirikgabeak” direla uste diren 35 fundaziok auditoretzari buruzko txostena borondatez entregatu dute. Horregatik guztiarengatik, berrikusitako erakundeen % 45,6k kanpo-auditorearen txostena entregatu dute.
- Kontuak aurkeztu dituzten fundazioen batez besteko antzintasuna 26,82 urte da; ongintza-sorospeneko fundazioen antzintasuna, berriz, 50 urte.



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

- Aztertutako 366 erakundeetatik % 49 mikroerakundeak dira, hau da, ekitaldian jasan duten gastua guztira 300.000 eurotik beherakoa da.
- Kontuak aurkeztu dituzten euskal fundazioen ondare garbia 6.300 milioi eurotik gorakoa da. Fundazio horiek, 2014ko ekitaldian, fundazioaren xedetarako 850 milioi euro baino gehiago erabili dituzte, eta 11.000 pertsona baino gehiago daukate enplegatuta.
- Banku-fundazioak ondare garbiaren % 78 dira, eta 2014ko ekitaldian fundazioaren xedetarako 50 milioi euro erabili dituzte.
- Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioen sektorea gai da diru-laguntza publikoen euro bakoitzeko ia-ia beste bi euro ustiapenerako mobilizatzeko, eta jarduerarako diru-laguntza publikoen bolumena ia-ia hirukoizten du, kontuan hartu gabe –kasu askotan– hitzarmen, kontratu eta antzekoen gisa jasotzen diren diru-sarrera publikoak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioak diru-sarrera publikoen mende daude neurri handi batean. Xede horretarako, nagusi dira Eusko Jaurlaritzatik datozen diru-sarrera publikoak (% 53) eta aldundietatik datozenak (% 24). Horiek batik bat irakaskuntza eta ikerkuntzarako fundazioetarako (% 50) eta ongintza-fundazioetarako eta lan arloko fundazioetarako (% 29) erabiltzen dira.
- EAEko fundazioek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko aginduak betetzeari dagokionez, 9/2016 Legearen Laugarren Xedapen Gehigarria, ordezkariak orekatuari buruzkoa betetzen den soilik egiaztatu ahal izan da. Ondorio nagusia hau da: 2014ko ekitaldian kontuak aurkeztu zituzten fundazioetatik euren patronatuetako datuak sexuen arabera bereizita daudenen artean, % 20ren gobernu-organoetan ez dago emakumerik, hau da, 362 fundaziotatik 73tan. Gainera, aztertutako fundazioen gobernu-organoak osatzen dituzten ia-ia 3.000 pertsonetatik, emakumeak % 29 dira. Euren patronatuetan emakumeak dauzkaten erakundeetatik, % 22k soilik dauka ordezkariak orekatua, fundazioen % 67k patronatu maskulinizatuak daukate, eta kasuen % 11n emakumeen ordezkariak % 60tik gorakoa da, hau da, gobernu-organo feminizatuak dira.



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

ERANSKINA: Balantzea eta emaitzen kontu bateratua

AZTERTUTAKO FUNDAZIOEN

BALANTZE AGREGATUA, 2014 ETA 2013KO ITXIERAN

(Mila Eurotan)

<u>AKTIBOA</u>	<u>2014</u>	<u>2013</u>	<u>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA</u>	<u>2014</u>	<u>2013</u>
AKTIBO EZ KORRONTEA:			ONDARE GARBIA:		
Ibilgetu ukiezina	55.121	45.788	Funts propioak:	5.722.468	5.725.992
Ondare Historikoko ondasunak	91.534	89.619	Zuntz fundazionala/Funts soziala	3.821.643	713.710
Ibilgetu materiala	686.264	719.739	Erreserbak	1.742.062	2.094.029
Ondasun higiezinak inbertsioak	100.701	105.278	Aurreko ekitaldietako emaitzak	175.797	2.976.659
Taldeko entitateetako eta elkartuetako epe luzeko inbertsioa	4.898.462	4.927.596	Ekitaldiko soberakina	(17.034)	(58.405)
Epe luzeko finantza-inbertsioak	407.993	379.750	Balio-aldaketan doikuntzak	62.813	50.244
Zerga geroratuen aktiboak	451	454	Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	592.412	577.548
Zordun ez korronteak	8.770	6.246			
Aktibo Ez korrontea, guztira	6.249.296	6.274.470	Ondare Garbia, guztira	6.377.693	6.353.784
AKTIBO KORRONTEA:			PASIBO EZ KORRONTEA:		
Saltzeko mantentutako aktibo ez-korronteak	16.880	2.963	Epe luzeko hornidurak	22.122	23.921
Izakinak	28.442	27.017	Epe luzeko zorrak	220.021	249.449
Erabiltzaileak eta jardura propioaren bestelako zordunak	108.455	114.380	Taldeko entitateekiko eta elkartuekiko epe luzeko zorrak	2.072	2.617
Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak	217.220	210.955	Zerga geroratuen pasiboak	77	77
Taldeko entitateetako eta elkartuetako epe laburreko inbertsioak	5.055	4.363	Epe luzeko periodifikatzeak	524	994
Epe laburreko finantza-inbertsioak	124.610	136.818	Pasibo Ez korrontea, guztira	244.816	277.058
Epe laburreko periodifikatzeak	2.765	2.833			
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	207.030	186.555	PASIBO KORRONTEA:		
			Epe laburreko hornidurak	10.015	8.797
Aktibo korrontea, guztira	710.456	685.884	Epe laburreko zorrak	132.491	95.002
AKTIBOA, GUZTIRA	6.959.752	6.960.355	Taldeko entitateekiko eta elkartuekiko epe laburreko zorrak	10.379	8.015
			Onuradunak-Hartzekodunak	38.646	51.243
			Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak	131.025	151.624
			Epe laburreko periodifikatzeak	14.687	14.830
			Pasibo korrontea, guztira	337.243	329.513
			ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA	6.959.752	6.960.355



Euskadiko Fundazioen Babesletzan aurkeztutako kontu-emateen azterketa eta egiaztapena. 2014ko ekitaldia

AZTERTUTAKO FUNDAZIOEN 2014 ETA 2013 URTEKO EKITALDIEI DAGOKION GALDU-IRABAZI ORRIA

(Mila Eurotan)

	2014	2013
EKITALDIKO SOBERAKINA:		
Jarduera propioaren diru-sarrerak	655.068	632.346
a) Bazkide eta afiliatuen kuotak	54.027	53.748
b) Erabiltzaileen aportazioak	51.591	48.302
c) Promozioen, patrozinatzaileen eta kolaboratzaileen diru-sarrerak	120.799	120.508
d) Zerbitzu-emateak	76.281	69.012
d) Ekitadiko soberakinara aplikatutako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak	352.370	340.776
Merkatal jardueraren salmentak eta bestelako diru-sarrerak	78.153	77.342
Laguntzengatiko gastuak	(112.938)	(121.383)
Izakinen aldakuntza	1.538	(1.115)
Entitateak bere aktiborako egindako lanak	2.271	1.241
Hornidurak	(86.660)	(85.027)
Entitatearen bestelako diru-sarrerak	25.685	27.241
Pertsonal-gastuak	(406.486)	(407.257)
Ustiapeneko bestelako gastuak	(183.961)	(174.416)
Ibilgetuaren amortizazioa	(64.851)	(66.199)
Soberakinara lekualdatutako kapital diru-laguntza, dohaintza eta legatuak	31.701	31.021
Hornidura-soberakinak	1.144	1.442
Ibilgetu narriadura eta besterentzearen emaitza	2.603	2.471
Beste emaitza batzuk	(1.308)	(1.164)
USTIAPENENKO SOBERAKINA	(58.040)	(83.457)
Sarrera finantzarioak	51.285	42.626
Gastu finantzarioak	(10.536)	(8.077)
Finantza-tresnen arrazoizko balioaren aldakuntza	9.870	8.130
Kanbio-diferentziak	(17)	(72)
Finantza-tresnen narriadura eta besterentzearen emaitza	(9.661)	(17.512)
FINANTZA ERAGIKETEN SOBERAKINA	40.941	25.095
ZERGA AURREKO EMAITZA	(17.099)	(58.362)
Mozkinen gaineko zerga	64	(43)
SOBERAKINAN JASOTAKO ONDARE GARBIAN IZANDAKO ALDAKETA	(17.034)	(58.405)
ONDARE GARBIAN ZUZENEAN EGOTZITAKO DIRU-SARRERA ETA GASTUAK		
SOBERAKINEKO BIRSAILKAPENGIK GARBI:		
Jasotako diru-laguntzak	8.044	(16.981)
Jasotako dohaintzak eta legatuak	6.472	27.192
Bestelako diru-sarrera eta gastuak	11.316	31.371
Zerga efektua	(0)	(1)
ONDARE GARBIAN ZUZENEAN EGOTZITAKO DIRU-SARRERA		
ETA GASTUEN GATIK O NDARE GARBIAN IZANDAKO ALDAKETA	25.832	41.582
IRIZPIDE ALDATZEAGATIKO DOIKUNTZA	1.096	415
AKATSENGATIKO DOIKUNTZA	274	(3.520)
ZUNTZ FUNDAZIONALEAN EGONDAKO ALDAKETAK	15.085	17.081
BESTELAKO ALDAKETA BATZUK	(1.344)	(1.248)
EKITALDIKO ONDARE GARBIAN IZANDAKO ALDAKETA	23.909	(4.095)